

**Irakurketa,
liburuak eta
irakurtzera
bultzatzea**

Hausnarketak eta
proposamenak



2 Sarta verdea

BLITZ

Liburutegiko sagua

Irakurketa, liburuak eta irakurtzera bultzatzea
Hausnarketak eta proposamenak

Argitaratzailea
Nafarroako Gobernua
Hezkuntza eta Kultura Departamentua

Egilea
Victor Moreno

Bildumaren zuzendaritza
Pedagogi Berrikuntzako
Zerbitzuko Documentazio Zentroa

Marrazkiak
Asis Bastida

Imprimaketa
Litografia Ipar, S.L.

D.L. NA - 3.471/2000
ISBN 84 - 235 - 2085 - 4



**Irakurketa, liburuak
eta irakurtzera bultzatzea
Hausnarketak eta proposamenak**

Hona hemen *Blitz*, *liburutegiko saga* bildumaren bigarren alea, *Blitz eskolan*. Literatur pedagogiaren munduan balio handia aitortzen zaion Victor Moreno irakasle eta idazlearen lana dugu.

Lan honetan irakurtzeko gaitasuna garatzeko jarduerak proposatzen dira, eskolako liburutegian egitekoak. Egileak liburua hartu du jarduera hauen abiapuntutzat. Liburuaren kontzeptuari eta bere osagaiei buruzko bi unitate didaktikotan antolatzen dira, eta irudimena, adimenaren eraikuntza eta zentzu kritikoa lantzen dituzten jokoen bitartez garatzen dira.

Irakurtzeari buruz dituen iritziak zentzuzkoak, desmitifikatzaileak eta batzuetan polemikoak dira eta eskola-porrotaren arrazoiei buruz pentsarazten digute, irakurtze-egintzari dagokionean: “Ikasle askorentzat, liburuak beren eskola-porrotaren lehertze zeinuak direla aitortzea garrantzitsua da. Liburuak goraiatzea, eskolan autoestimu baxua izatearen arrazoi zuzentzat hartzen dituen publiko baten aurrean, ez da noski printzipio pedagogiko on bat. Bestalde, kontuan izan behar dugu ikuspegi ez-motibatzaile hau: irakurtzea lana dela. Zaila, eta batzuetan mingarria ere bai, ez ulertzeak ere mina eragiten baitie bihotzari nahiz adimenari”.

Lan hau ikasleen heziketa linguistiko-literarioaz kezkatzen diren irakasleei zuzendurik dago, izan ere, irakasle hauek hitzak gozamen pertsonalerako nahiz garapen profesionalerako erabiltzen dakiten irakurle kritikoak eta idazle trebeak prestatu nahi dituzte.

Jesús María Laguna Peña

HEZKUNTZA ETA KULTURA KONTSEILARIA

.....



aurkibidea

.....

7

I. Irakurketaren gaineko kontuak

- 10 a. Irakurtzera bultzatzea
12 b. Irakurtearen atsegina
13 c. Hizkuntza eta literatura arloetako hezkuntza
14 d. Liburua mito bihurtzea
15 e. Irakurtzera bultzatzeko teknikak
-

II. Eskolako liburutegian egin beharreko jarduerak

18 Lehen zatia

LIBURUA, HAUSNARBIDE: LIBURUAREN ZER DEN DEFINITU NAHIAN

- 19 1. Liburuaren kontzeptura hurbiltzeko bi metodo: elkarrengandik urruntzen duena eta elkarretara hurbiltzen duena
26 2. Liburuaren jatorri etimologikoa
27 3. Liburua beste hizkuntza batzuetan
27 4. Esanahiaren konstelazioa
31 5. Errimak
32 6. Beste jarduera batzuk
36 7. Hiztegia
38 8. Hiperboleak
39 9. Atsotitzak
40 10. Aforismoak



42

Lehen zatia

LIBURUAREN OSAGIAK

- 45 1. Begiradaren sareaz
45 2. Liburua mugitzen
50 3. Liburuaren metamorfosia
60 4. Askotariko testuak ekoiztea
61 5. Sailkatu eta jokatu
62 6. Hitz batean zehaztu eta laburbildu
63 7. Azken oharra
-

64

BIBLIOGRAFIA

.....



I.

Irakurketaren gaineko kontuak



Nire ustez eskolak ez du irakurlerik sortu behar. Ez zait iruditzen eskolaren helbururik behinenetako bat hori dela. Zinikoren batek dio eskolak ez dituela irakakurleak sortzen, uxatzen dituela baizik. Ezta hori ere. Gertatzen dena anitzez ere konplexuagoa da. Bizitza osoan zehar egiten gara irakurle edo irakurtzeari uzten diogu. Irakurtzeko ohitura, badago, haurtzaroan hasi eta zahartzarora bitarte osatzen joan ohi da. Ohitura horretako oro behin-behinekoa da eta ez dezala inork uste irakurtzeko ohitura betiko dela. Irakurtzea, ohitura baino gehiago, irmotasuna, jarraipena eta fideltasuna da. Hori dela eta, irakurtzeko astirik ez dutela diotenenek arrazoi dute. Benetan gertatzen dena da ez dutela irakurtzeko borondaterik, izaerarik eta setarik.

Orotan garrantzitsua da haurtzaroan eta nerabezeroan daudenen **irakurtzeko gaitasuna** garatzea eta sendotzea. “Irakurleak egin” esaldiak esaten duenaren pare bada ere, ez da gauza bera, esanahi aldetiko oinarria ez baita bera.

Sinetsita nago erraz-errazena irakurtzera bultzatzea dela. Ikasleek oso dute gustuko, irakurri behar ez dutenean izan ezik. Baina zailena, gogorrrena eta korapilatsua irakurtzeko gaitasuna garatzea da, liburuaren eduki plural eta askotarikoan sartzeko aukera ematen digun tresna ezinbestekoa, alegia.

Halako ikuspuntuak bi gauza eskatzen ditu: irakurtzea zer den aurretik jakitea eta irakaskuntza-ikaskuntzaren azpiko adimen eta afektuzko inplikazioak.

Baliteke zeregin horri lotzean jendea gehiegizko boluntarismoz, alai eta ausart aritzea eta alde batera uztea kontzeptuen zorrotasuna eta zehaztasuna. Ez dira gutxi ezagutu ditudanak, animoz bete-beterik, irakurtzera bultzatzeko lanetan buru belarri sartu direnak baina batere garbi izan gabe irakurtzea bera zer den. Pentsatzekoa den bezala, porrot egin dute errealitate gordinaren aurrean. Irakurtzera bultzatzeko jolasetan haurrek irakurtzen dute baina, harrigarria bada ere, ez dira irakurle bilakatzen. Edo zehatzago esanda: irakurtzera bultzatzeak ez du etorkizunean irakurle sutsuak izanen ditugula bermatzen. Penagarria bada ere, zer edo zeren adierazle ere bada.

Beraz, teoria eta prozedura aldetiko zuhurtziaz jokatu beharko genuke. Badakigu animazio ororen osagai oinarritzko zein ezinbestekoa jolasa dela. Hala ere, ez genuke irakurketa baikortasun murriztaile baten ikuspegitik hartu behar. Irakurtzea ez da jolas egitea, ez da abentura, ez da bidaia. Metafora sutsu horiek argitu baino gehiago nahasten dute.

Kontuan izan dezagun irakurtzeko gaitasunaren garapena erro-errotik loturik dagoela ikasgeletan irakasten diren hizkuntza eta literatura irakasteko ereduari. Adierazgarria iruditzen zait irakurketaz, hartara bultzatzeaz, irakurleak egiteaz horrenbeste hitz egitea, gero hizkuntzaren eta literaturaren ikaskuntzaz hain gutxi hitz egiten den bitartean.

Ildo horri jarraikiz, gogoan izan dezagun ikaskuntza horien helbururik behinena dela ikasleengan hizkuntza tresnak garatzea, esate baterako, testuak aztertzea inolako enboliaririk eman gabe. Kontua da testuen ildo harrapatzea eta harekin nahi duten guztia egin

ahal izatea: begiratu, aztertu, ulertu, interpretatu, kritikatu, harekin gozatu, eraldatu, imitatu, haren parodia egin eta, azken finean, erabili.

Hizkuntzaren eta literaturaren irakaskuntza-ikaskuntzaren helburuetako bat da ikasleak testuen gaitasun komunikatibo hobezina erdiestea, batetik, testuak ulertzeko eta ekoizteko eta, bestetik, beharbada garrantzitsuena dena, testuez gozatzeko eta bizitzeko.

Ikasle anitzek ez du irakurri nahi, irakurtzerik ez duelako. Kontua ez da ez dutela irakurri nahi -nahi ez dutenak ere badira, hemen aipatuko ez ditudan beste arrazoi batzuegatik-, ezin dutelako baizik. Ez dute irakurtzen ahal testuak irakurtzeko behar den jakintza *-deklaratibo eta prozedimental-* egoki nahikorik ez dutelako, ez poztasun eutsiez in batez irakurtzeko baina bai seguru samar. Finean, kontua da liburuaren orrialdeetan ageri den hori ez izatea irakurlearendako gauerdiko ahuntzaren eztularen pareko.

Eskola ez da **irakurri nahi ez duten** ikasleen arduradun. Nolanahi ere, irakurtzea ez da betebeharra, ez da hala? Baina eskolak bai bere gain hartu behar duela **irakurtzerik ez dutelako** irakurtzen ez duten ikasleen arazoa. Zergatik? Irakurtzen ez dakitelako. Zergatik? Irakurtzen irakatsi ez zaielako.

Ez dute irakurtzen ahal irakurtzen eta idazten ikasteko eta irakasteko sistemak ez dielako irakurtzeko gaitasun hori eman. Gaitasun horrek berarekin ditu, besteak beste, adimen eragiketa hauek: testuko unitateak zein diren antzeman eta identifikatu; jakintzak arrazoitu eta erabili testuko informazioari eta zentzuei aurre egiteko eta, azkenik, esanahia, egokitzapena eta koherentzia ezarri, irakurketaren gorabeheren arabera.

Garrantzitsua da irakurlea irakurtzen ari den bitartean sentitzen, begizatzen eta pentsatzen ari denak harrapatzea irakurlearen arreta eta, aldi berean, irakurtzen ari den hori bereganatzea, haren ildo nagusiarri erreparatzea. Bi jarrerak dira elkarren osagarri.

Esan izan da eskolak soilik bigarren jarrera sustatu duela baina afera horren gaineko eztabaida luzea izanen litzateke. Eta egiazki hala egin izan balu, dimentsio hori bereganatu izan balu, uste duzue zuzen irakurtzerik ez duten horrenbeste ikasle izanen zela?

Eskola bateko ikasleek ez badute irakurtzen irakurtzerik ez dutelako eta haien irakurtzeko gaitasunaren garapen hobezinik izan ez dutelako, orduan, esan dezakegu eskolak nola edo halako porrota izan duela. Baina, eskolaren erantzukizun hori leunduko litzateke porrot horren zergatiak zein izan diren aztertuko bagenu. Hala ere, horrek ez ligu ke kontsolamendu anitzik ekarriko.

Finean, irakurle izateko irakurtzen jakin behar da. Badakigu horrekin ez dugula beste munduko gauzarik asmatu baina, hala da? Irakurri nahi ez duten ikasleek badakite irakurtzen?

.....

a. Irakurtzera bultzatzea

Nik ez dut inola ere ezbaian jartzen irakurtzera bultzatzeko jolasek irakurtzeari begirako afektuzko eta adimenezko joera nola edo halakoa garatzen dutena baina, zoritxarrez, ez dute irakurlerik egiten. Irakurtzera bultzatzearen ondorioetako bat da ez dutela epe luzerako irakurlerik egiten. Esan daiteke ez dela luzera begirako jarduera, epe laburrekoa baizik.

Urte anitz dira liburuaren inguruko jarduerak asmatzen gabiltzala eta ez da inon emaitza eraginkorrik ageri. Ezbairik ez izan, horrek min eman behar digu horretan sartu dugun denbora eta ahalegina ez baitira nolanhikoak izan. Aitzitik, ez-irakurleak egiteko metodoek arrakasta itzela izan dute. Ildo horri dagokionez, metodo horiek zein diren aztertu behar da, beharbada, epaitzeko orduan garbi ez daudelako edo, okerrago oraindik, irakurtzeko gogorik eza horren eragile benetazkoak ez direlako.

Estatistikek segitzen dute salatzen metodoen eta irakurleak egiteko erabiltzen ditugun tekniken eraginkortasun eza. Horren guztiaren gainean hausnartu beharko genuke, anitzetan, metodo horiek salatzeaz gain, horiek konpontzen saiatzen baikara, inolako eraginkortasunik ez badute ere. Diodanari jarraikiz, ikasleek ez irakurtzeko dituzten zergatiak ez dira direnak, beste batzuk baizik. Beharbada, haurrek irakurtzeari muzin egitearen arrazoi bakarra irakurtzen ez jakitea izan daiteke.

Irakurtzera bultzatzeari dagokionez, ez da liburuagatiko interesik pizten, amarru lana egiten duen jolasarena baizik, ikasleak amarruan erori eta liburua irakurtzen hasteko. Gehienetan, jolas horiek azenario dirdiratsu eta argitsuen pare dira. Azenario horiek desagertutakoan, azenario horiek zutik segitzeko behar duten oinarri soila gelditzen da soilik: trebeki bata besteari jositako hosto sorta. Hosto horien argitasun eta edertasuna disenuari, koloreari eta marrazkiari dagozkio soilik, ez beste ezerri.

Irakurtzera bultzatzearen molde zurrunarekin segitu behar badugu behinik behin, komeni izanzen litzateke oinarri sendoagoko zerbait prestatzea eta ez boy scoutendako prestatu ohi diren aisiarako jarduera bedekatu horiek. Argi dago irakurtzeko gogoia pizteko erabiltzen direla baina, egiazki, jolas solidario eta kooperatiboan parte hartze-ko gogo izugarria pizten dute, ez besterik. Irakurtzera bultzatzeko edozein ekintzatan kilikagarria metodoa da, eta ez liburua bera.

Jolasa da erakargarri. Baina liburua eta irakurketa ez dira jolas. “Irakurtzea jolas zoragarria da” esan ohi zaie haurrei. Haietako galdetu ohi dute: “Nola jolas gaitzeko martxianotan ordenagailuan?” “Anitzez ere hobeki” erantzun ohi dio heldu gizaraioak. Baina berehala harrapatzen da amarrua. Helduek ikasleendako asmatu ohi ditugun jardueren artean, ba ote da tranpa oinarri duen jarduerarik, tranpa hori alai, jolaserakoa eta gozamenerakoa bada ere?

Irakurtzera bultzatzea ere ez da askatasunerako gune nahastezin, batzuetan hala esaten bada ere¹. Irakurketara bultzatzeak eta helduak haurtzarorako antolatzen duen edozein jarduerak arazo hertsatzaile berberak dituzte. G. Steinerrek alderdi hori mahai gainean paratzen badu ere, ez da egia argi eta benetakoak eman dezakeen zehaztasun osoaren parametroetan. “Zer eskubide du edozeinek gizaki baten gozamendu eta gustuen maila goratzera behartzeko? Nik susmoa dut irakasle izatea eskubide hori beretzat hartzea dela. Ezin da irakasle izan, barne-barnean despota izan gabe, hau da: testu eder bat, musika zoragarria, goi matematika, Historia, filosofia maitaraztera behartu behar zaitut. Baina, adi: itxaropen horren etika oso da zalantzazkoa”².

Irakurketara bultzatzearen kontzeptua bera bezain zalantzazkoa. RAEren hiztegiaren diena begiratzen badugu, gatzelaniako *animación* hitzak hamar adiera ditu, ez gutxiago ez gehiago. Ikus ditzagun:

“1.- Gorputza biziagotzea. 2.- Izaki bizidun bati kemena ematea. 3.- Norbaiti energia morala ematea. 4.- Ekintza bat egitera bultzatzea. 5.- Arte lanetan, bizidun balira bezala agertzea. 6.- Gauzaki bizigabeak badira, kemen, intentsitate eta mugimendu handiagoa ematea, 7.- Bizirik gabeko gauzei mugimendua ematea. 8.- Jende lehiaketa edo paraje bati mugimendua, berotasuna eta bizitza ematea. 9.- Bizitzea (zaharkitua). 10.- Animoa eta ahalegina lortzea”.

Edozein adiera hartuz gero eta, txantxa moduan, gatzelaniako *animación* zer den esateko balioko liguke. Gure afera honi dagokionez, emanen luke, norbaitek esku hartu duelako, bizia berreskuratu duen hilotz baten edo koman dagoen norbaiten aurrean gaudela. Anitzetan badakigu hori hala dela. Irakurtzera bultzatzeko jarduerak, irakurketari dagokionez hilda edo hil hurran dauden ikasleendako antolatu ohi ditugu. Beharbada, ikasle horiek behar dutena besterik da, hau da, irakurketa ulertzeko klase zuzenak. Uste izan ohi da, gainera, aipatu jolas horien bidez hizkuntzaren arazo neketuen eta konplexuenak konpondu ohi direla baina hori ez da egia. Egin ohi dugun bakarra -nire ustez ez dago hain gaizki-, berez elkartzeko eta gizarteratzeko beharra duten pertsonen artean jolastea da, ez besterik.

Laburtzeko, liburuaren inguruan egiten diren hainbat jardueraren xedea gozatzea da baina ez hesirik jartzea, hainbat ikasleri testuak ulertzea eta interpretatzea, sentitzea eta bizitzea eragotzen dioten zergati intelektualetako batzuei. Benetan diotsuet, zailena irakurtzera bultzatzeko jarduerak prestatzea da, bereziki irakurtzeko gogorik ezaren zergatiak arintzeko.

- 1. Luis García Monterok esanen du “ez da ezer literatura baino baliagarriagorik literaturak izaki aske bihurtzen baikaitu oro sor eta suntsi daitekeela frogatzean” (*Confesiones poéticas*, Granada, Granadako Diputazio Probintziala, 1993), [Itzultzaileak berak itzulia].
- 2. G. STEINER- A, SPIRE, *La barbarie de la ignorancia*, Mario Muchnik, Bartzelona 1999. [Itzultzaileak itzulitako zita].

.....

b. Irakurtzearen atsegina

Gero, hor dugu irakurtzearen atsegina. Komeni da berriz errepikatzea. Irakurtzearekin atsegina erdiestea ere ez da curriculumaren helburua. Irakasleak ez daude behartuta ikasleei atsegina ematera; hori hala bada ere, ikasleen aurrean ez gara sadikoki portatuko edo, hitz arinagotan esanda, ez dugu behin eta berriz pilotalekuko horma baten kontra joko. Irakasleak gelan aspertzeak ez du esan nahi ez dutela ikasten. Ikaslea irakurtzen aspertzeak ez du esan nahi ez duela irakurri behar eta ez duela irakurtzen segitu behar; baldin eta irakurtzea edozein motatako kontzeptu bat ikasteko “sine qua non” bada. Asmo bat betetzen ez denean, asperdura sortzen da baina irakurtzeko eta idazteko gogo hori buruak egiten duen ahalegin eta hausnarketa gartsuaz asebetetzen da. Irakasleak ez aspertzeko ez dugu irakas jarduna zirko bilakatuko, jakintza deklaratioa prozedurazko jakintza bilakatuko dugu -lehenago zekitenarekin zerbait egitea-. Horregatik, eskolaren ardura da irakurtzeko gai izateko tresnez hornitzea, tresna horien bidez ikasleak nahi duenean irakur ditzan testuak. Horrekin atsegina hartzen duen edo ez, bere kontua izanen da. Aspertzen direnean ekimen propioz irakurtzen dutenez ari gara edo, Barojak esanen lukeen bezala, bizitza pasatzeko beste gauza duinagorik ez dutelako.

Irakurketaren arloan eskolak dituen helburuak irakurtzeko atsegin hori erdiesteko tresnak eskuratzeari dagozkionak dira eta ez horiekin esperimentatzeko beharrari dagozkionak. Irakasle anitz ezkor dira ikasleen kexuak entzuten dituztenean eta esaten dietenean ikasleek irakurtzen ez dutelako inolako atseginik lortzen. Eta nork esan die horrekin esperimentatu behar dutela? Bigarren graduko inkognitak asmatzen edo logaritmoak ikasten atseginik lortzen dute?

Litekeena da irakurketaren gaineko diskurtsu faltsua sortu izana, hots, oinarrian atsegina erdiestea eta irakurtzea multzo bereiztezin batean sartzen zuena, eta, gure zorigaitzerako, boomerang baten ondorioa sortu izana, hau da, gure kontra bilakatu izana.

Atseginik, baldin bada, norberarena da, ia-ia kontaezina. Atsegin horretaz hitz egiten hasiko bagina, seguru nago gure aitortzek ez luketela bat eginen. Haurrei irakurtzearen atseginaz hitz egitea oso da arriskutsua, atsegin hori enpirikoki egiaztatzerik ez baita. Nola frogatu behar diet haurrei irakurtzen dudanean izan ohi dudana ustezko atsegin hori izaten dudala? Nik neuk ere ez nuke jakinen neure buruari nola adierazi eta.

Ikasleak irakurketara hurbiltzeko eta hartan sakontzeko prozesuak maiz berotegi baten antza du, erabateko babesa eta paternalismoz jotako laguntza eskaintzen duen zerbait balitz bezala. Irakurtzen duen edozein pertsonaren bizitzaren espazio eta denboretatik arras urruntzen den zerbait. Ildo horri jarraikiz, badirudi nahikoa logikoa dela ikasleek gizarteak irakurtzea zer den ulertzen duen modua bereganatu behar badute, hau da, testuaren eta irakurlearen artean sortzen den harreman pertsonal eta aske modura, ezaugarri horiek izanen dituen irakurketa gunee bat beharko genuke. Gune hori ez da

irakurtzeko eta literaturarako gaitasuna garatzeko eskolak dituen egoerakin identifikatuko, ez da hura baino gorago egonen ere. Irakurketa bakarkako egintza da, bakarrik eta norberak nahi duen gisa egitekoa. Beraz, hori bera da gure jardueren ipar-orratz eta gida: haurra irakurle trebe egitea, gaur egun eta etorkizunean, hala nahi badu, irakurketaren egintza bakarzaleari aurre egiteko.

Horrexegatik, ez ditugu nahasi behar irakurtzera bultzatzeko prestatu diren egoerak, irakurketarako eta literaturarako gaitasunaren benetako garapenarekin bat, eta haren azkeneko helburua: aspertuta daudelako edo irakurtzea atsegin dutelako edo beste ezer egiten ez dakitelako irakurtzen duten pertsona trebeak egitea, hau da, berendako, enpresa batendako edo artikulua bat idazteko irakurtzen duten pertsonak egitea.

C. Hizkuntza eta literatura arloetako hezkuntza

Nire ustez, irakurle trebeak egiteko onena da hizkuntza eta literatura arloetako hezkuntza aberatsa izatea. Etorkizuneko irakurleen benetako oinarria hizkuntza eta literatura arloetan prestakuntza aberatsa izatea da. Irakurleak egiteko biderik zuzenena idazleak egitea da. Irakurtzea idaztea baino anitzez ere zailagoa da. Idazteko buru-ahalegina baino ahalegin fisiko handiagoa behar da. Irakurtzea anitzez ere erosoagoa da. Irakurtzea ez da idaztea baino errazagoa. Higadura fisikorik gabe, idazteak irakurtzeak baino gutxiago eskatzen du.

Irakurtzea beste batek egindakoari segitzea da, beste batek egin dituen diskurtsuari, lexikoari, irudiei, oparotasun linguistikoiari, jakintzari jarraitzea da, hark egin dituen esaldiak, elipsiak ulertzea da, haren tonoa, ironia, sarkasmoa, testua antolatzeke eta egituratzeko modu berezi-berezia interpretatzea da, finean, irakurtzen ari garenean beste batek idatzi testuan arima eta bihotz sartzen gara.

Irakurtzea, aitzitik, testua hasieratik bukaeraraino nola esan behar den eta nola planifikatu behar den kontrolatzea da, hau da, diskurtsua bera, sintagmaren, tonoarene eta hiztegiaren ildoak. Idazten ari garenean ez dugu kontakizunean inolako izualdirik hartzen guk geuk banatu eta antolatu ohi baitugu kontakizuna. Idaztea geure kontzientziari dagokion zerbait da.

Hezkuntzako erakundeetan irakurtzea obsesio bilakatu da baina ez idaztea dela-eta. Beharbada hori izanen da irakurtzeko gogoia zuluatu eta higitzen duen arrazoi sakonenetako bat, gazte-gaztetan halako promesak izan ondoren. Beharbada, eskolatze osoan irakurtzeko gogoia piztu eta mantentzeko balitz, irakurtzeko gaitasun mailak -eta, horren ondorioz, etorkizuneko irakurleak- anitzez ere handiagoak izanen lirateke. Arrazoa argi eta garbia da: idatzi ohi duenak beti irakurri ohi du.

.....

d. Liburua mito bihurtzea

Gero, hor dugu liburuaren idealizazioa, hau da, liburua objektu magikoa, zoragarria eta fantastikoa da. Norbera libre da bere ahalmenei mugak jartzeko. Horrenbestez, onar dezagun irakurketa eta liburuengatikoa sua beste muga bat direla. Baina zuhurtasuna eta diskrezioa ukatzeraino, amildegi handia dago. Errealitatea eta fikzioa nahastea gero eta gehiago edozeinen eskura dago baina oso arriskutsua izanzen litzateke trukada hori irakasleen animoan sartzea.

Porrot eginen luke irakurtzera bultzatzeko diskurtsuak, hots, ia-ia termino esoterikoetan egiten den liburuaren gorazarrea oinarri duenak. Egia da liburuak ikaragarri maite ditugula baina arrazoi horregatik beragatik nahi dugu talde horren partaide izan nahi dutenek zer egiten ari diren jakin eta hartutako erabakiarekin kontziente izan daitezen. Irakurketa hartzen bada munduan bakarrik gaudelako nahita hartutako nortasun ikur modura, egiaz geure burua mugatuko dugula. Irakurketa aukeratzean, hori bezain aukera txar edo onak bazter utziko ditugulako.

Irakurtzea gure izakiaren sintoma bihurtu ohi da; gauza onen eta ez hain onen sintoma baina besteak bezain zilegi diren gauzena. Irakurle garenok ez gara nork bere aisialdia espirituali asetzeko kirola eta papiroflexia aukeratzeko dutenak baina pertsona hobeak, ezta txarragoak ere. Irakurtzen dugunean ez gara ez gehiago, ez gutxiago. Irakurtzen irakurle egiten gara. Irakurtzeak irakurtzea baitakar berarekin. Liburuaren diskurtsu apologetikoa “Alexandriako konplexua” dugunon kontua da. Aldiro kontzeptuen amildegi horretan erori ohi gara gogor baieztatu ohi dugunean geure munduan libururik gabe bizitzerik izanen ez dugula. Gogora ekar dezagun aipatu berri dudana Alexandriako liburutegi hori. Suntsitu zen eta, zer gertatu zen? Bada, munduan milioka liburutegik haren lekukoa hartu zutela. Eta ez hori bakarrik: laster atek irekiko ditu lehen aldiz Alexandriako beste Liburutegi batek -Alexandrina deituko da-, lehenago Ptolomeoarren Jauregia non, hantxe berean. Liburutegi horren fondoan, oso-osorik, informatizatuko dute.

Liburutegi bat desagertzeak atsekabea sor diezaguke baina ez hondamendi horren ondorioz sortzen den diskurtsu fundamentalista. Eta are gutxiago, ikasleen aurrean ukitu apokaliptikoekin aurkeztea. Liburuari duen garrantzia emanen diogu -norberak merezi duen hura-. Horri jarraikiz, ez dut ahazten Steinerrek zioena: “Zer dela eta giza-zientziak -hitzaren adierarik zabalenean hartuta- eta zer dela-eta zientzien arazoak ez digute inolako babesik eman ankerkeriaren aurrean? Zergatik, jo daiteke Schubert gauean eta hurrengo biharamunean kontzentrazio eremuan nork bere beharkizunak betetzera joatea? Irakurketak, musikak, arteak, ez dute eragotzi basakeria osorik. Dena esan behar bada, basakeria horren edergailu izatera iritsi da”³.

■3. George Steiner-Antoine Spire, *La barbarie de la ignorance*, Mario Muchnik, Bartzelona 1999 [Zita itzultzaileak itzulia].

Era berean, ikasleen zati handi batendako liburuak beren ikasketen porrot garbiaren adierazle dira. Ez da, berez, hastapen pedagogiko egokia, liburuak goraipatzea beren eskolako autoestimua apalaren zergati zuzen modura duten ikasleen aurrean. Horren ordainez, ez dugu begien bistatik galdu behar motibazio apaleko perspektiba, irakurtzea lana dela dioena, alegia. Baina hala da. Zaila, eta batzuetan, mingarria, zeren eta ez ulertzeak bihotzean eta adimenean ere min egiten baitu.

e. Irakurtzera bultzatzeko teknikak

Itzul gaitzean berriz irakurtzera bultzatzeko erabili ohi diren tekniketara. Horietako ia gehienak multzoari begira prestatu ohi dira. Horien hartzaile naturala, taldea da, kolektiboa, zer edo zer inbertsonala.



Baina, irakurketa bakarka egitekoa da, pertsonala eta intimoa. Ez da multzotik bakarrera automatikoki iragaten, ez da erraza. Lehenak ez du nahitaez bigarrena ekartzen. Bakarkako irakurketaren eta taldearen jardueraren artean gehiago dira desberdintasunak, berdintasunak baino. Esparru publikoaren inguruan gabilta; irakurketa, aldiz, bakarkako gune pribatu eta intimoaren zatia da. Irakurketa bakardadea da, kontzentrazioa, isiltasuna, mugikortasun fisikorik eza, isolamendua eta beste edozein jarduera behin-behineko alde batera uztea eskatzen duen jardun kontenplatiboa da.

Haurrak ez du hori guztia gustuko. Haurrak ez du norbanakoa izan nahi. Haur izan nahi du eta haiekin egon nahi du. Bereari eutsi nahi dio baina gainerakoekin batera eta gainerakoen aurrean. Irakurtzen hasten bada, bere buruarekin monologatu edo hitz egiten du, eta hori ez da oso atsegina adin horietan. Egiazki, norberak bere buruaz pentsatzea leudekeen adimen jarduerarik gogorrenetako bat da. Azken finean, pentsatzen jartzea gure ekintzetako txikienean parte hartzen duten askotariko faktore magabeak kontuan hartzea da. Eta hori nekeza da.

Gazteak ihes egiten dio bakardadeari, izurriteari egiten dion bezala. Beldur dio bakarrik izateari. Nahi ez den bakardadearen osina areagotzen du irakurketak.

Bestalde, haurra ez da geldirik egotekoa. Mugitu behar du, batetik bestera joan, gauzak egiten dituen bitartean bizirik dagoela sentitu nahi du. Irakurketa adimenarekin bidaia egitea da baina gorputza aulkiari itsatsita. Irakurketa gorputza higitu gabe egotea da. Zer gaztek nahi du, oso kultura izanagatik ere, horrelako kortse ortopediko bat? Irakurtzera bultzatzeak hori eskertzen du, eskuzabala eta zabala izateaz gain haren berezko gune baita, batetik bestera mugitu beharreko jarduerak bere egiten baititu.

Harritzen bagara ere, hotsak ez dio inolako eragozpenik sortzen haurrari. Hotsaren laguntzaz indartzen da. Izua dio isilik egoteari, atsekabea sortzen dio eta harrizarrak gainera eroriko balitzaio bezala jartzen da. Nerabeak beti lotzen dio irakurketa hilerriko

.....

giroari, zeru azpian izan daitekeen isiltasun handienarekin. Ez da erraza erantzun konbentzigarrik ematea. Isiltasun barneko balorea eta etika aurkitu gabe ezinezkoa baita irakurketa goraiatzeko eta haren metodologia ulertzea.

Azkenik, nerabeak egiten duen ororako xede bat behar du. Ez du deus hurririk egiten. Zerbait egiten badu, zerbaiten bila ari delako da. Nola konbentzituko dugu irakurketa onuragarria dela? Etekina? Zerena? Nola konbentzituko dugu pertsona konduktisa huts bat -ez da harritzekoa bestela ez izatea halako eskolatzeko eskinneriar muturrekoa jaso ondoren- esaten badiogu prozesua, barne bidaia, gerundioa eta hutsean egiten den abentura direla garrantzitsuenak, eskuz egindako produktu bukatuaren aurretik? Nola konbentzituko dugu ikaslea garrantzitsuen irakurtzea dela eta ez irakurtzeagatik atera daitekeen nota, bitzta eta curriculum osoan besterik ez badu bereganatu? Inolaz ere ez hitzez hitz eta belaualdiz belaualdi.


Irakurketari dagozkion alderdiei erreparatu gero -norbanakotasuna, bakardadea, isiltasuna, ekoizpen sistema sozialaren etekin hutsala (erabiltzeko balio du baina ez aldatzeko)-, konturatzen gara irakurtzera bultzatzeko jolasekin ez dutela ia-ia zerikusirik, jolas horiek multzoan egitekoak baitira, hots ateratzekoak eta baliagarriak soilik une batean, une jakin batean joera bat, hots, jolasteko eta besteekin egoteko gogoia, asebetetzen dutelako, ez besterik. Horri guztiari beste hau gehitu behar genioke: irakurtzera bultzatzeko jardueren hartzaila irakurle homogeneoa eta unibertsala da, beraz, esistitzen ez dena. Aitzitik, irakurtzea pertsonala, jakina eta errepikaezina da. Orokorrean hitz egitea erraza den bitartean, hartzaila jakin eta pertsonal baten aurrean mintzatzeko ez da gauza bera.

Onera izanen litzateke irakurtzera bultzatzeko teknikak bete-betean asmatzea jolasaren bidez haurrari behin eta berriz liburua eskura jartzen diotenean. Nola? Jarduerak prestatu beharko lirateke, irakurtzearen beraren azpian dauden buru-eskemak eta eza-gutza-estrategiak garatzearekin zerikusia dutenak. Baina, beharbada, hala eginez gero, irakurtzera bultzatzeko teknikak izateari utziko liokete.



Ez naiz erremedioen eta tekniken arerio, inola ere ez. Hala ere, uste dut, ez erremedioek, ezta teknikek ere, ez dutela jendea irakurle bilakatzen. Bitzta honetan ez da berez deus ere erdiesten. Erdiesten dugun oro, berdin adimen mailakoa zein afektu mailakoa, ahalegin, dedikazio eta lan gehiagoz erdiesten da.

Azken finean, esan dezakegu irakurtzeko egin behar diren bideak geure bizitzarenak bezain konplexuak direla. Oso gustukoak ditugu eta beti ari gara bidea egiten, beti ari gara ikasten.



II.

Eskolako liburutegian egiteko jarduerak

Liburua aukeratu dut jardueren abiapuntu.

Jarduera horiek bi multzotan banatzen dira: lehena, liburua hitzari dagokiona da, eta bigarrena, liburuaren zatien osagaiei dagozkienak dira.

Horren guztiaren xedea da ikasleak liburuari hurbiltzea, erreparatuta, batetik, liburuaren kontzeptuari eta, bigarrenik, harrigarria badirudi ere, irakurlearen adimenean ikustezin gelditzen diren alderdi ikusteko modukoei.

Lehen zatia

LIBURUA, HAUSNARBIDE: LIBURUA ZER DEN DEFINITU NAHIAN

Liburuez ari behar dugunez, onena izanen da lehenik eta behin jakitea zer den liburu bat. Beraz, galdera hau egiten dugu: zer da liburu bat?

Ikasleek liburuekin duten eguneroko harremana ikusita, ez da batere zaila definizio ego-kia ematea: isplatzte hutsa.

Hasteko, komeniko litzateke denok ezagutzen ditugun liburuekin katalogo bat egitea. Testu nahasketa handi samarra izanen dugunez -entziklopediak, ikasliburuak, hiztegiak, eleberriak-, definizio bakarrak ez digu denetarako balioko.

Adibidez, RAEren hiztegian liburuaren definizioa hau da: “Liburua: batera jarrita bolu-men batean biltzen diren paperezko orrien multzoa. 2. Obra zientifikoa eta literarioa, hedadura zabalekoa, batera jarrita bolumen batean biltzen dena”.

Lehen adiera zalantzan jarri ondoren kritikoki aztertuko bagenu, seguru gaude merka-tuan “batera jarrita bolumen batean biltzen diren paperezko orrialde multzo” anitz aur-kituko genukeela. Hala ere, paper multzo horiek ez lukete liburuaren kontzepturik bereganatu. Orduan, zein paper multzok? Arakatu beharko genuke.

Hortxe dugu bigarren adiera. Gelan ikasleek irakurtzen dituzten liburuek, oro har, zientifikoak eta literarioak izan nahi dute. Eta, zein dira liburu zientifiko eta zein liburu literario? Bien arteko marra ezartzen jakinen genuke? Are gehiago: zer da zientifikotasuna? zer da literaturtasuna?

Gureari dagokionez, ustez liburu literarioetan erabiliko genituzke hausnarketa eta beha-keta. Hori hala izanik ere, ez da erraza kontzeptu hori definitzen. Eta hala da, aski baita literario adjektiboari berari erreparatzea, ez baita adiera bakarrekoa, denendako baliagarria den zerbait baita. Zailtasunak gorabehera, “liburuaren” ikasgelarako definizioa mugatzen saiatuko gara. Beraz, beharrezkoa izanen da geuk aurkitutakoa bateratzea eta erdiets ditzakegun definizioekin dituzten antzekotasunak eta desberdintasunak zein diren anotatzea. Ez badugu behin betiko definizio biribilik aurkitzen, ez da larritzeko modukoa. Liburuaren arloan jakintsua zen M. Durasek esan zuen “Batek beti badaki zer ez den liburu bat. Ez daki liburu bat zer ez den izanen. Inoiz ez du jakinen”⁴.

R. Escarpitek ere jarrera ezkor bera du ondokoa esaten duenean: “Bizia den oro bezala, liburuaren definiziotza da. Nolanahi ere, inork ez du inoiz liburu baten definizio oso eta behin betikoa eman”⁵.

4. Marguerite Duras, *Escribir*, Tusquets editores, Bartzelona, 1994.

5. J. Martínez Sousak aipatua bere *Diccionario de bibliología y de ciencias afines* liburuan. Germán Sánchez Ruipérez fundazioa, Madril, 1993.

I. **Liburuaren kontzeptura hurbiltzeko bi metodo: elkarrengandik urruntzen duena (*dibergentea*) eta elkarretara hurbiltzen duena (*konbergentea*)**

Liburua definitzeko bi norabide metodologiko desberdin erabil ditzakegu. Lehen, elkarrengandik urruntzen duena, arinagoa, askeagoa, jostalariagoa baina ez horregatik haren formulazioetan zuzentasunik eta doitasunik gabea.

Bestea, elkarretara hurbiltzen duena, ordenatuagoa, razionalagoa, ez hain analogikoa baina ez horregatik sormenik, irudikapenik eta adimenik gabea.

Errealitate berari egiten zaizkion bi begirada desberdin besterik ez dira. Bi begiradek ez dute ikerketaren xedea agortzen, ez alde dibergentetik, ezta alde konbergentetik ere. Bi begirada horiek elkarren beharra dute, ez baitira kimikoki garbiak. Sormenak eraginda du razionaltasunean eta zuzentasunak eta arrazoibideak sormenean.

■ **Elkarrengandik urruntzen duen metodoa (*metodo konbergentea*)**

Metodo horren bidez abian jarriko ditugu prozesu analogiko eta asoziatibo batzuk, hots, bizitzan erdietsi diren hainbat jakintza mugiarazten dituztenak. Jakintza horiek kontzienteki erdi lotan daude sormenaren memoriaren zuloetan edo ahanztura garbi eta gupidatsuan.

Metodo horri esker ideiak, irudiak, sentimenduak, hiztegia eta aurreiritziak aterako dizkiogu pertsonari. Horiek guztiak edozein kontzeptutatik hurbil daude, baita liburutik ere. Jolasaren bidez egin dugun lehen hurbilpena da, irudikatutakoaren eta oroituta-koaren zehaztasuna arbuatzen ez badu ere, haren helburu behinena bederen ez dena. Egia esateko, helburua da pertsona bat objektu batera hurbiltzea, kontuan izanda objektu hori ia-ia egunerokoa dela, bizitza arruntekoa, eguneko anitz ordutan present dena. Gainera, arraroa da zer den ere galdetzea, ikaslearen edo irakurlearen egunerokotasunean murgilduta dagoelako, ezagun eta betiko zerbaite bezala hartzen baitu.

Jarduera honi ekiteko eskemak hainbat proposamen biltzen ditu bere baitan. Gehiegi pentsatu gabe, subjektuak bizkor erantzunen du. Subjektuaren bizipenak nolakoak, hala-koa izanen da erantzuna. Hori hala izanik ere, hizkuntza konnotatiboa da. Ez da esaten dugun hitz bakar bat ere, den arruntena izanik ere, oroitzapenaren tolesduretan ezkutatutako nostalgiarik berarekin ekartzan ez duenik. Eta zergatik ez da berdin gertatuko liburua hitza gogora ekartzan denean?

Ikasleei orri bat emanen zaie. Orri horretan hasitako sail batzuk osabete behar-ko dituzte. Gomendio bakarra eginen zaie: erantzuna ez gehiegi pentsatzeko eta ikasleei bururatu edo ikasleek gehitu nahi dituzten aukerak sailean sartzea.

.....

Oso da komenigarria ikasleei esatea ez dutela inolako asoziaziorik errefusatu behar, ezta den inozoen edo ausartena ere. Burura etorri bazaio, zerbaitengatik izanen da. Beraz, hori ere sartu sailean. Proposatu den eskema eta ordena aldatzen ahal dira, egiturak gehitzen ahal dira edo proposatu diren egituren arteko bat aldatzen ahal da.

- Niretzat liburua da:
- Iruditzen zait liburua ondokoa dela:
- Liburuak burura ekartzen dizkit:
- Liburuak ondokoekin irudikatuko nuke:
- Liburu baten ezaugarriak hauek dira:
- Oro har, pertsona bat irakurria dela esateko arrazoi hauek ditut:
- Orain, liburuen gaiztakeriak zein diren esanen dut:
- Nire buruari galdetzen diot: zergatik daude liburuak?
- Liburuak izatearen ondorioak hauek dira:
- Liburuak desagertuko balira, zer gertatuko litzateke?
- Denek irakurriko balute, zer gertatuko litzateke?
- Bukatzeko, zer da liburu bat?

Ondotik, saio batean izan diren erantzunak bilduko dira, baita esangura eskasekoak ere. Batzuetan, erantzun horiek izaten dira argienak eta iradokizun gehiago sortzen dutenak.

Ikus ditzagun, bada, talde baten zenbait erantzun.

- **Niretzat liburua da:** dokumentua, entziklopedia, erroilua, orriak, edukiak, prestakuntza, jolasa, asperdura, sakrifizioa, aisia, elkarrizketa, egilea, teoriak, usaina, uki-mena, sakela, lapurreta, liburutegia, liburudenda, idazlea, dirua, ergelkeria, heriotza, bizitza, bakardadea, deklamazioa, ikerketa, oharrak, asteburu tristeak.
- **Iruditzen zait liburua ondokoa dela:** mezua, nartzisismoaren lagina, denbora galtzea, naturaren gehiegikeria, min eta jakintza iturria, norberak bere burua zalantzan jartzea, inarrosaldia, ideiak aurkitzeko modua, mundu desberdinak, bidaiak eta abentura, harrokeria, hitz egiteko aitzakia, jende xumea erabiltzea, azalekotasuna, oroitzapena, iragana, ezereztasuna.
- **Liburuak burura ekartzen dizkit:** bakardadea, isiltasuna, pentsatzea, erostea, denbora libre pasatzea, bibliomania, saga, liburutegia, lana, ikasketak, intimitasuna, zoriontasunik eza, plazerra, gozamenak, pertsonaiak, bizitza eredugarriak, bizitza bekaiztuak, fikzioa, irudimena, fantasia, urruntasuna, ideiak, ergelkeriak, dirua, kioskoa, liburudendak, Alexandria, hegazkina, trena, bidaiak, itxaron gelak, autobus bidaiak, Gizarte Zientziak irakasgai agertu zitzaigun eskriba, lapitzak, izpiritu aberastasuna, uneoro tantaka dauden txorrotak, mendi berdeak eta ahaztutako ibaiak, maindireak, mesanotxea, botika, negua.
- **Liburuak ondokoekin irudikatuko nuke:** arranoa, arraina, arratoia, igela, idia, trena, itsasontzia, flexoa, atea, gelak dituen korridorea, ildoak, ibilbideak, bidexkak, bideak, bideen planoak, kartografia, mapa, balkoia, tintontzia, begiak, bihotz bakartia, harrizko aulkian

eserita dagoen emakume agurea, kedarrez betetako tximinia beltza, zakurra, luma bat, urkia, itsasontzi bikingo baten branka, amiamoko baten habia, sator zuloa, indusketa.

- **Liburu baten ezaugarriak ez dira** denborapasen, hitz gurutzatuen edo puzzleenak bezalakoak. Liburu gehienak ez dira arinak eta ongi pasatzekoak, batzuk astunak dira, beste batzuk arinak eta atsegingarriak; batzuek ez dute pisu handirik; beste batzuk, aldiz, pisu samarrak dira. Ez da libururik sortu guk haiekin sufritzeko; hala ere, batzuetan sufritzen dugu. Liburuak ordenatuak eta garbiak dira, beti tinta usaina dute, hitzak eta irudiak dituzte, ez dute alamenik ematen, beti isilik daude, erraz erabiltzekoak dira eta batzuk eskuz eramateko modukoak dira.
- **Oro har, pertsona bat irakurria dela esateko arrazoi hauek ditut:** jakintsua delako, zitak erraz esaten dituelako, beira lodiko betaurrekoak dituelako, zarpail janzen delako, hoguei urte izanagatik laurogei dituela ematen duelako, bere jakintza maila bizitzak eman diona baino handiagoa delako, ez duelako edozeinekin hitz egitea gustuko, gainerakoekin ia-ia harremanik ez duelako, sakelean duen diru guztia liburuetan xahutzen duelako, aspergarria delako, harrotasunaren akatsak dituelako, liburu usainik ez balu olio frijituaren usaina izanen zuelako.
- **Orain, liburuen gaitakeriak zein diren esanen dut:** liburuengatik astakeria anitz egitea; batzuek besteak liburuengatik menpean hartzea; liburuengatik sortzea batzuk besteak baino gorago dauden gizarte ereduak; haurkeriak; errealitatearekin harremana galtzea, basoak moztea eta zibilizazioak galtzea; eleberriko pertsonaia dela iruditkatzea, eleberriko pertsonaiak haragi-hezurrezkoak baino gehiago maitatzea; kritikariak eta literatura gehigarriak sortzea; bakardadea bakarrago bihurtzea; jende anitzi gezurra esatea; sentikor izan behar ez dutenak, sentikorrago bihurtzea; lapurrak sortzea.
- **Nire buruari galdetzen diot: zergatik daude liburuak?** Lehenagoko denboretan errodak eta kontuak zeudelako; harrokeriagatik, asperduragatik, arrazoian gehiegi fidatzeagatik, sadismoagatik, masokismoagatik, hala delako, boterea dagoelako, ahozkotasuna mezpreatzen delako, oroimenaz fidatzen ez garelako, gizakiak ez direlako ezertaz fidatzen, ezta inorengan ere, gizaki batzuek uste baitute beste batzuk baino maila handiagoa dutela; dena bukatu gabe dagoelako; mina eta etsipena dagoelako; gizakia hain eskuzabala delako.
- **Liburuak desagertuko balira, zer gertatuko litzateke?** Iraganeko oroimenaren zati bat galduko litzateke, liburuak hausnartzeko ematen dizuten gaitasuna galduko litzateke, liburu-saltzaileak, liburuzaingarriak, idazleak desagertuko lirateke, eskolek beste laguntzaile batzuk asmatu beharko lituzkete; liburuak oparitu ezinik geldituko lirateke; gobernuak ez lituzke diruz lagunduko; baten batzuek lanpostua galduko lukete.
- **Denek irakurriko balute, zer gertatuko litzateke?** Gauza berririk ez, telebista gutxiago ikusiko litzateke, etxeetan gutxiago hitz egingen litzateke, jendeak elkarren artean gutxiago hitz egingen luke eta liskar, hilketa, tragedia gutxiago izanen lirateke, hitzak ez luke baliorik izanen; hitzekin soilik hilko litzateke...

.....

Zer egin daiteke erantzun horiekin?

Orain arte esan den guztia testu mota desberdinen iradokizun eta hastapenez jositako askotariko zama da. Hainbat testu idazteko/hitz egiteko/marrazteko aukera paregabea.

Oro har, ondoko jarduera hauek egin daitezke:

- Liburu bat zer den jakiteko publizitate hormirudiak egitea.
- Liburuaren poster-zeinuak egiteak.
- Liburu jakin baten gaiztakeriak kontatzea.
- Jarraibide eskuliburua prestatzea irakurtzen ez dutenek irakur dezaten.
- Liburu ezezagunari monumentu bat diseinatzea.
- Aipatu diren enumerazio horien ondoriozko galderaren bati erantzun (argudioak emanetz): denek irakurriko balute, zergatik ez luke deus ere balioko hitzak?
- Liburu bat esku artean izan nuen lehen aldia nolako izan azaltzea.
- Lagun bati gutun bat idaztea eta liburuari egin zaizkion definizioetako bat komentatzea.
- Liburua irudikatze erabili diren irudiekin olerki bat idaztea.
- Testu enumeratibo bat idaztea. Testu horren sintaxiaren ardatz behinena galdera bat izanen da: noiz?, nola?, zergatik?, zertarako?

■ Elkarretara hurbiltzen duen metodoa (*metodo konbergentea*)

Helburua da liburuaren definizio kolektiboa egitea. Gure asmoa ez da ikasleek egiten duten definizioa eta ustez irakasleek dutena berberak izatea. Jakin badakigu besteen ideiak eta iritziak onak izan ohi direla geurean antzekoak izan ohi direnean baina, honako honetan, utz dezagun bazter gure harrokeria kontzeptualaren irriki bizia, denon artean bilaketa antolatua egitearen mesedetan.

Irakasleek ikusiko dute bilaketa hori aitzakia hutsa dela, pixkana-pixkanaka, ikasleak ikerkuntzarako jarrera hasiberri baina beharrezkoan jakinmina izaten has daitezten. Ikasleen jarreraren txertatzen ahalegintzea liburuaren paper azpian ageri den ororenganako jarrera baikorra.

Lana ez da erraza, ezta xumea ere. Bitxia egiten zaigu baieztapen hori ez baitugu inolako arazorik gure ikerketaren xedeari dagokionez. Erraza zail bilakatzen da pertsona batek baino gehiagok zerbaiten gainean eztabaidatzen dutenean⁶.

- 6. Literatura produkzio batzuen oinarria hastapen hori da, Gordon-ek "Sinektika" deitu zuen hori. Gordonek uste du asmaketaren oinarria oharkabekoa eta irrazionala dela. Oharkabeko tresna horiek bideratzen dute asmaketa. Sinektikak anitz zor dio arrotzasunaren teknikari, zein lehen aldiz Viktor Sklovski-k erabili baitzuen estreinakoz definitzeko nola besaulki soil baten gainean idatzi zuen Tolstoi-k, "inoiz ikusi izan ez balu bezala eta zertarako erabil zitekeen ere jakin gabe". Max Ernst-ek "besterentze sistematikoa" izena eman zion teknika horri. Julio Cortázar-ek Instrucciones eta *Historia de cronopios y de famas* liburuetan erabili zuen teknika hori.

Badakigu zer den liburu bat inork ez badigu galdera hori egiten baina, galdetzen digutenean, ez dugu batere garbi zer den liburu bat. Zergatik? Liburuaren kontzeptua ez delako bide bakarrekoa eta, batez ere, izan baitira anitz liburu, liburutzat hartu badira ere liburu ez direnak. Egungo liburu birtualak Errege Akademiaren hiztegiak liburuari eman dion definizioa bera ere zalantzan jartzen du.

Liburu bat benetan zer den jakin nahi badugu aski dugu bestearekin ados jartzea, bere iritzi edo ideia hurbiltzea. Munduan dauden liburu guztiendako baliagarria izanen den definizio bat bilatzea eta aurkitzea. Horrelako ezaugarriak dituen definiziorik eman daiteke? Entziklopedietan eta hiztegietan, han eta hemen, dauden definizioetako edozein aztertzen badugu, konturatuko gara hori ez dela horrela.

Egin beharreko bidea

1. **Ikasleek orri batean paratuko dute zer den haiendako liburu bat.** Nahi adina eta nahi erara egin dezakete.
2. **Orriak bilduko dira. Lanak ahots goraz irakurriko dira, esan gabe egileak zein diren.**

Lehenik, seguru gaude eman diren definizioetako anitz eta anitz kontrajarriak izanen direla eta, egunero gertatu ohi den bezala, bizitzan hitz anitz erabiltzen dugula hiztunek esanahi bera ematen ez badiete ere.

Irakasleak, hala nahi badute bederen, sozialki egoera hori sor dezaketen arazoan gainean eztabaida interesgarrian sar daitezke: hitz berberak erabiltzen ditugu baina ez diegu esanahi bera ematen. Zergatik? Komunikazioaz hitz egin dezakegu erabiltzen ditugun adierazleek lexemetan esanahi bera badute? Zergatik hitz berak esanahi bat baino gehiago ditu, hitza denendako berbera bada ere?

Bigarrenik, interesgarria da ikasleek eman definizioak hartu eta haien adierazteko moduaren arabera sailkatzea. Honako honi dagokionez, irakasleak zuhur ibili behar du eta errekamara didaktikoan hainbat definizio mota eduki, definizio horiek formulatzeko erabiltzen direnak, alegia. Modu desberdinetan lor daiteke. Horietako batzuk hauek dira:

- a. ■ Definitzea, zerbait sartuz: *Liburu bat bolumen bat da*
- b. ■ Definitzea, zerbait deskribituz: *Orri multzo bat da*
- c. ■ Definitzea, eginkizunaren arabera: *.... balio duen objektu bat da*
- d. ■ Definitzea, beste zerbaitekin alderatzeko: *...honen antzekoa da*

Behin hori eginik, geure buruari egin diezaiokegu galdera: goian aipatu diren definizio motetatik zeinek asebetetzen gaituen gehien eta zergatik.

.....

Hirugarrenik, ikasleen definizioak behatu, aztertu, analizatu, sailkatu eta alderatu ondoren, hiztegiatarako jo behar dugu, hantxe aurkituko baitugu gu definitzen saiatu garen kontzeptu horretaz zer dioten hiztegiek.

Horretarako, komeni da hiztegi bat baino gehiago izatea. Hiztegietan dauden definizio batzuk besteekin alderatu ondoren, konturatuko gara lexikografoak ere ikasleen antzerara dabiltzala, ildo honi dagokionez behinik behin. Esperientzia oso baliagarria zaigu konparazioek -gorrotagarriak izan arren- ustezko jakintza horren itzalen gainean argi-argia ematen dutelako.

Ondotik hiztegi ezagutueneren definizioak dauzkagu:

- Sebastian de Covarrubiasek, *Tesoro de la lengua castellana o española*-n honako hau dio liburua hitzaren gainean: “Liber latinezko hitzetik eratorria. Definizio arrunta: liburua, koadernoetan lotutako orriak, paperezkoak edo pergaminozkoak, lotzen dituen bolumena da, kanpoko azalak dituena. Liburua hitza latineko liber hitzetik eratorren da, hau da, zuhaitz azala edo antzinakoek azal horietan idazten baitzuten, azal horien eta zuhaitzaren artean idazteko balio zuten ehunkiak ateratzen baitzituzten, bereziki papiro izeneko zuhaitzetik. Paper arruntarendako ere izen hori bera gelditu zaigu. Liburu berria egin, kontu zaharrak kitatu. Batzuetan bizitza ontzeko asmoa adierazteko izen hori erabili da. Bere herriko liburuan ikasi izana, irakatsi diotena baino gehiago ez jakitea. Esan ohi dute: Jaungoikoak libra zaitzabela liburu bakarra duen gizonetik, ona izaten asmatzen badu eta unibertzala izatera ailegatzen bada, maiz liburu hori irakurri ohi duenez, han esaten dena onartuko du eta agintzen duena *in promptu* erabiliko du”⁷.

Definizio horri erreparatuz gero, argi dakusagu Covarrubiasen denboretan liburua ez zela industriaren produktua.

- Errege Akademia: 1. Paperezko, bitelazko edo abarrezko orri askoren bilduma, oro har inprimatuak, paperezko, kartoizko, pergaminozko edo beste larru mota bateko azalaren inguruan josi edo koadenartu direnak. Bolumena osatzen dute. 2. Lan zientifiko edo literario luze samarra. Bolumena da. 3. Lan zientifiko eta literarioak, eta hedadura handiko kode eta legeak zatitu ohi diren zati nagusietako bakoitza.
- Vox: Paperezko orri multzoak, idatziak edo inprimatuak eta josiak gorputz bakarra egiteko.
- Euskal Hiztegia: Idatziriko eta irakurtzeko prestaturiko orri multzo aski handiaren bilduma.
- Espasa: 1. Eskuz idatzitako edo inprimatutako paperezko orri multzoa, josi eta koadenatu ondoren bolumena osatzen duena. 2. Lan zientifiko edo literario luze samarra. Bolumena da. 3. Lan zientifiko eta literarioak, eta hedadura handiko kode eta legeak zatitu ohi diren zati nagusietako bakoitza.

7. Sebastián de Covarrubias, *Tesoro de la lengua española o castellana*, Ediciones Turner, Madrid 1979.


- Moliner: Idatzitako orri multzoa, batzuk besteei ertz batean atxikiak.
- Anaya (Lat. Liber, -bri) i.m. 1. Oro har inprimatutako orri multzoa, den-denak ertz batean josi edo atxikiak. Azalak dituzte. 2. Lan luze baten zatietako bakoitza. 3. Libretoa. 5. Liburu forma duten gauzei aplikatzen zaiena. Liburu motak gehitzen ditu: “ Txuria, horia, gorria; zaldunenak; kutxakoak; kanonikoak; ikasliburuak”.

Hizkuntzaren adituek definizioak eman dituzte. Guk, orain, gure definizioekin bat egingen ote duten aztertu eta ikusi behar dugu. Definizio batzuen eta besteen arteko berdintasunak eta desberdintasunak zein diren ikusi behar dugu. Eta are garrantzitsuagoa dena, ikusi behar dugu definizio horiek munduan dauden liburu guztiendako balio duten edo ez.

Liburu motei dagokienez, María Molinerren Hiztegian liburu mota hauek ageri dira.

Bitxikeria modura ikus ditzagun:

- Antifona liburua edo antifonarioa
- Behi larruzko liburua
- Zaldun liburua
- Diru-sarrera eta diru-irteeren liburua
- Liburu kanonikoa
- Liburu kopiatzailea
- Koruko liburua
- Berrogei orriko liburua (baraja)
- Kontu doituen liburua
- Eguneroko liburua
- Elizgizonaren liburua
- Fondoko liburua
- Ordu kanonikoen liburua
- Liburu nagusia
- Meza liburua
- Moralaren liburua
- Musika liburua
- Urrezko liburua
- Zigor liburua
- Prozesio liburua
- Erregistro liburua
- Errito liburua
- Askotariko liburua
- Ikasliburua
- Liburu berdea
- Bizitzaren liburua⁸



■8. Martínez de Sousaren *Bibliologiaren hiztegia*n zerrenda xeheagoa aurki daiteke.

.....

2. Liburuaren jatorri etimologikoa

Spainieraz eta beste hizkuntza batzuetan liburua aipagai duten hitzek landarediarekin dute zerikusia: *biblos*, grekeraz, kanabera batzuen, bereziki papiroaren barne zuntza da. *Liber*, latinez, zuhaitzen azalaren eta egurraren arteko mintza da. Virgiliok eta Zizeronek aditzera eman ziguten legez, papera asmatu baino lehenago mintz horretan idatzi ohi zen.

Lehen definizioaz honako hau ageri da Corominasen Hiztegiari: “latinezko *liber*, -bri-tik hartua, id. I dokumentazioa: hizkuntzaren jatorriak (Cid eta abar). Erromantze guztietan forma kultua du. *Liber* termino botanikoa (Acad.1884, no 1843) bikoiztua da, “landareen azalaren barneko zatia” adiera etimologikotik eratorria. Erromatarrek paper mota bezala erabili zuten (hortik gero “liburua” hitza).

Eratorrien artean, hauek: *liburuzaina*, *liburu denda*, *liburuaren merkataritzakoa*, *liburuena*, *libreta*, *liburutxoa*, *liburuxka*, *libretista*, *zigarro-paperekin paketea*, *liburukotea*, *liburua* (mezpr.), *libeloa*, latinezko *libellus*-etik hartua -*liburuxka*-, *liber-en txikigarria*.

Bigarren definizioaz honako hau dio Martinez de Sousak: *Bibl*-. Grekerazko *biblion*-en aurrikia “liburua”. Hitz bibliologikoa anitzen lehen osagaia da.

Grekoek *biblos* deitu zuten erromatarrek *liber* deitu zutena. Grekoek papiroa *biblos* deitu zuten. Papiroan idazten ziren liburuan antzinatean. *Liber*-ek baino zorte hobea izan zuen, *biblos* jakintsuen termino bilakatu baitzen: liburuak gordetzeko tokia (*bibliotheca*), liburuak gordetzeko tokiaren arduraduna (*bibliothecarius*) eta, orobat, *Plinio Zaharraren arabera*, liburuaren merkataria (*bibliopola*).

Martinez Sousak hitz anitz ditu bere lanean. *Biblos*-etik eratorritako hauek hartu ditut: *Biblioclasta* (*biblio*-tik eta grekerazko *klaos*-tik, hautsi). *Bibliolita* izanen litzateke horren sinonimoa. *Liburu* hauslea.

Biblioclepto (*biblio*-tik eta grekerazko *kleptes*-etik, lapurra). *Bibliopirata* izanen litzateke horren sinonimoa. *Liburutegi* edo *artxiboetatik liburuak*, dokumentuak edo beste pieza batzuk lapurtzen dituen pertsona.

Bibliofagia (*biblio*-tik eta grekerazko *phagos*-tik, jan). *Liburuak* edo eskuz egindako edo inprimatutako dokumentuak jateko ohitura. *Irud*. *Liburuak* inolako aprobeixamendurik gabe irakurtzeko ohitura edo *liburuak* adimengabe pilatzea.

Bibliofagia, bereziki, animaliei dagokien zerbait da. Baina bada zenbait kasu, zeinetan pertsonen pergaminoak jan baituzte (adibidez, Italian, XV. mendean) eta Asian sineskeriagatik papera jan ohi zuten kasuak ezagutzen dira. *Buonocore*-k dio, 1370ean, Milango printze *Barnabó Viscontik* *Nikolas V*-aren ordezkariak behartu zituen -eskumikatze bula zuten- bula hori idatzi zen pergamino bera haren aurrean jatera. Era berean, esan ohi da anitz tartarok *liburuko orriak* jan zituztela, orri horiek berek duten jakintasuna bereganatzeko asmoz.

3. Liburua beste hizkuntza batzuetan

Hizkuntza erromanikoetan liburua adierazteko hitza latineko formatik eratorritakoa da: galegoz eta italieraz, *libro*, espainieraz bezala; frantsesez, *livre*, grafia horretatik hurbil portugalesarena *livro*; katalanez, *llibre*, asturieraren *libru-tik* ez urrun. Euskaraz, *liburu*.

Ingelesaren *book* eta alemanaren *Buch* indoeuropeoaren erro beretik eratorri dira. Erro horren esanahia: “basoko egurra”. Errusierazko *kniga*, liburua, txineraren *king*-etik etor daiteke. Txineraz *king* liburu klasikoa da eta mongoletik eta turkotik hartu dute.

Arabieraz liburua *kitab* da; hebraieraz *sefer*; txineraz *sh o shu-ji* “lan idatzia”, koadernatutako liburua.

Zinez bitxia da mendebaldeko liburuaren inguruan erabili ohi diren hitz gehienak landareditik eratorri ohi diren beste hitz batzuekin dutela zerikusia, ezagutzen diren idazteko materialik zaharrenen osagaiak anitzez ere gogorragoak eta iraunkorragoak zirenean, esate baterako, harria (estelak, zipoak), ostrakak, adreiluak, buztinezko oholtoxoak. Aitzitik, liber-a bezalako material hauskorrak, -ez dakigu noiz hasi zen erabiltzen-, halako arrasto betierekoa utzi du. Ez dakigu gure arbasoek hitz hori erabiltzen ote zuten gaur egun liburu deitzen dugun objektuaren edukia edo tankera aipatzeko⁹.

4. Esanahiaren konstelazioa

Liburu hitzaren inguruan itzul-inguruka dabil hainbat hitz konnotatibo, zeinek gugan oroitzapen eta ametsmunduko makina bat kontu ekartzen baitizkigu. Zer hitzez ari gara? Egin dezagun geure ideia zurrumbilo hori beste ezerri erreparatu gabe eta egin dezagun horien zerrenda¹⁰.

■ Adjektibazioa

Ez da erraza propietatez adjektibatzea. Haur eta gazte literaturan ditugun adjektibazio gehien-gehienak estereotipo bat dira, zer edo zer komuna. Denok badakigu adimena toki komunetatik urrun dagoela. Irakurlea nagü bihurtzen dute eta mezprezatzen dute. Badakigu adjektibatzen ikastea eta irakastea ere ez direla deklarazio eta prozedura bidezko jakintza partikularren parte. Adjektiboa literaturaren parte da baina, aldi berean, haren heriotza. Kontu handiz ibili behar da adjektiboekin. Lehenik, ikasleen hizkuntza

■9. J. Martínez de Sousa, *Diccionario de bibliología y de ciencias afines*, Germán Sánchez Ruipérez fundazioa, Madril 1993.

■10. Lehen jardueran, hots, kontzeptuaren “garapen dibergenteaz” ari ginela, aurkitu genituen hitzez baliatzen ahal gara. Han anotatu genituen proposamen sortzaile berberak hemen ezar ditzakegu.

.....

ondaretik erauzi behar ditugu haren oroitzapen sortzailean gorderik dituen eta bere lanetan oso gutxitan erabili ohi dituen adjektiboak. Hau da, aitaren batean, pentsatu gabe, liburuari aplikagarri izan dakizkiokeen adjektiboen zerrenda egin dezala. Horrela eginez gero, ondoko hauek erdietsi ditugu.

Intrigazkoa, fantastikoa, zoragarria, aspergarria, gogaikarria, freskoa, usain txarrekoa, baliorik gabea, nahitaezkoa, atsegina, alaia, tristeia, umorezkoa, ohikoa, kritikoa, musikala, zaila, orijinala, oldarkorra, utopikoa, gezurrezkoa, harrigarria, xehekarria, espezializatua, arrunta, baldarra, aberatsa, ezinezkoa, teknikoak, zientifikoa, irudimenezkoa, ankerra, argitsua, literarioa, artegarria, bihozgabea, zirraragarria, nahigabezkoa, argia, estresagarria, ederra, plazertsua, soinuduna, higuinagarria, sakona, zorrotza.

Zer egin horrenbeste hitzekin?

- 1º. Sailkatu.

Hainbat arlotako irizpideri segituta: usaimena, ukimena, dastamena, ikusmena, entzumenena, psikologia, fonetika eta semantika.

- 2º. Uztartu.

Goian aipatu adjektibo horiek azkenik edo berriki irakurri dituzten liburuetakoa batzuekin erlazionatu. Honela egin liteke: irakurri duzuen liburuetakoa zure ustez zein liburu da freskoa, musikala, zaila, baldarra, bihozgabea, ederra, estresagarria?

- 3º. Hipotesiak egin.

Laster irakurriko duten liburuaren izenburua gida modura hartuta, zure ustez hurrengo adjektiboetako zeinek deskribituko luke ongien liburuak: "intrigazkoa, lo egiteko modukoa, aspergarria, ergela"? Irakurri ondoren, esan dezatela ezarri dioten adjektiboak zuzena den edo, aitzitik, zerrendako beste bat jarriko lioketen.

- 4º. Konparatu.

Alde batera utzita liburuak irakurri ote dituzten edo ez, konparazioak egiteko adjektiboaren zerrenda erabiliko dute. Oso korapilotsu eta zaila da, bereziki gelan horrelako lanik egiten ez denean.

Konparatzeko elementuak hauek dira: *-hau baino gehiago-*; *-hau baino gutxiago-*; *-hau beste hori bezainbat-*. Horretarako, bi sistema prestatuko ditugu: lehen sisteman ez da konparazioaren bigarren elementua sartuko. Ikasleak asmatu beharko du eta oroimenean gorde. Horrela egin daiteke:

- Liburuaren balioa -rena baino handiagoa da.
- Liburuak ez da baino erabilgarriagoa.
- Liburuak bezain artegarria izan daiteke.

Bigarren sisteman konparazioaren bigarren elementua ematen da. Ikaslea behartzen du lehen elementuaren -adjektiboaren- eta bigarren elementuaren -izenaren- arteko analogia egokia aurkitzera. Horrela egin daiteke:

- Liburu bat -leihoa- baino intrigazkoagoa da.
- Liburu bat ez da -besaulkia- baino beharrezkoagoa.
- Liburu bat -oinetakoak- bezain zoragarria da.

■ Kasu-atzizkiak eta posposizioak

Egia da kasu-atzizkiak eta posposizioak hizkuntzaren esker oneko direla. Baina, itxura aldetik hain soilak badira ere, ez dira gramatikalki kokatzen errazak. Edozeinek, dela ikasle, dela irakasle, dela idazle, zuzen erabiltzen ikastea ez da batere lan samurra.

Kasu-atzizkiei eta posposizioei esker hainbat harreman mota ezarri ohi dugu, hala nola, denborazkoak, afektuaren kalitatezkoak, oldarkotasunekoak. Berdin gauzekin, pertsonekin, orobat, mundu honetan bizirik edo hilik dagoen ororekin. Eta, hala nahi badugu, liburuekin ere bai.

Kasu-atzizkiak eta posposizioak, eta liburuak erlazionatzean, argi eta garbi agerian utzi ohi ditugu pertsonen liburuekin izan ditzaketen harreman guztiak.

Ikus ditzagun, bada.

- Liburuei
- Liburuen aurrean
- Liburuen azpian
- Liburuen ondoan
- Liburuekin
- Liburuen kontra
- Liburuen
- Liburuetatik
- Liburuetan
- Liburuen artean
- Liburuetara
- Liburuendako
- Liburuengatik
- Liburuen arabera
- Libururik gabe
- Liburuen gainean
- Liburuen atzetik¹¹

■ 11. Euskaraz ez da preposiziorik. Horien ordez kasu-atzizkiak eta posposizioak ditugu.

.....

Erdietsi ditugun irudiei dagokienez, bi jarduera egin ditzakegu. Bata, hausnar egitekoa eta, bestea, sortzekoa.

Hausnarketa. Kasu-atzizkiek eta posposizioek biltzen dituzte beren baitan liburuekin ezar daitezkeen harreman guztiak? Edozein delarik ere erdietsi dugun erantzuna, ikasleei esan beharko diegu haiek liburuekin ezartzen dituzten erlazioak iker ditzatela. Beste hitz batzuekin esanda: zein dira, liburuei dagokienez, haien kasu-atzizki eta posposiziorik gustukoena? Eta, hala nahi badu bederen, haiek eman erantzunen zergatia zein den azter dezatela.

Sormena. Esaldiak osatzen ahaleginduko dira. Hona hemen adibide bat:

- Sitsa jaten ari da liburuak. Jateko modukoak dira, edo?
- Ez naiz sekula liburuen aurrean belaunikatu
- Liburuen azpian zorientasunaren mamua ezkutuan dago
- Liburuekin basakeria ere apaintzen da?
- Liburuen kontra daude, bai irakurtzen ez dutenak, bai gehiegi irakurtzen dutenak ere
- Liburuetatik, haien bizkarra janen nuke
- Liburuen ikuspuntutik, bizitzak ez du kolorerik, ez du usainik
- Liburuetan dago nik inoiz bizi eta biziko ez dudana
- Noizean behin liburuen artean beste pertsona bat izateko estuasuna sartzen da
- Liburuei buruz banoa egonarririk gabe, egonarrria fanatikoen bertutea baita
- Liburuendako mundua liburutegia da
- Bada jendea liburuengatik erotzen dena eta hiltzen duena
- Liburuen arabera, dena, egia izan ezik, gerta daiteke
- Libururik gabe krimenak soilik krimen izanen lirateke
- Oso jende argiek zozokeria anitz esan ohi dute liburuen gainean
- Liburuen atzetik joan ohi dira bizitzak sakon-sakonetik min eman dieten horiek



5. Errimak

Hau egiteko liburu hitzarekin errima egiten duten hitzak bildu behar dira. Hiztegian begiratu behar bada, begiratu. Ez da zaila, burura etorri bezala egin daiteke.

“Buru, aingeru, aieru, zeru, solairu, alokairu, mairu, miru, altzairu, diru, foru, goru, koru, zoru, barru, larru, amarru, porru, bizpahiru, aburu, basaburu, azaburu, urteburu, txoriburu, atalburu, galburu, izenburu, soinburu, orburu, iturburu, lauburu, aiduru, inguruminguru, mukuru, ipuru, kopuru”.


Hitz horiek oinarri hartuta bertsoak egin daitezke eta horiekin ideia bat edo zenbait ideia azal daiteke, beti ere liburuaren inguruan.

Behin batean ezagutu nuen liburu bat
izan nahi zuena aingeru.
Jendeak esaten zion: “Txoriburu!”
bera beti zegoen aiduru.
Horrela amaitzen dugu,
jasotzen hainbat diru.

Behin aurkitu zen zapaburu bat
liburu baten orrialdearekin.
Miru bat zuen marrazturik.
Hurbildu zen ikaraturik,
irakurlea eseri zen zoruan,
bere gainean. Zapaburu gaixoa!

Ez dakit liburu bat
orburu bat bezela den.
Kanpotik, orri gogorrak
Barrutik, bihotz samurra.

Bazen behin liburu bat,
orriak ahazturaz beteak.
Heldu ziren hainbat urteburu,
landatu zituen lau ipuru.
Zein lagun ona liburu hura!¹²



■12. Balizko bertso hauek limerick itxura hartzen dute.

.....

6. Beste jarduera batzuk

Jolas horiekin -jolasak baitira- irudimena, jakintzaren eraikuntza eta zentzu kritikoa pizten ari gara, gezurra ematen badu ere. Jolas horiek guztiak ez dira erraz-errazak, ez haiek berek eskatzen dutenagatik, baizik eta, bereziki, haien oinarrian dauden gaitasun analogikoak eta metaforikoek prozedurazko helburu ohikoak baitituzte. Beharbada uste izaten delako sormena ezerezetik sortu ohi dela eta ez dagokiola haurraren izaerari berari. Hala ere, adimenaren edozein tresnak bezala, curriculumaren aldetiko garapen eta lana behar ditu.

■ Antzekotasunak

- Zer antza dute elkarren artean liburu batek eta mozkor batek?
- Zer antza dute elkarren artean argazki kamera batek eta liburu batek?
- Zer antza dute elkarren artean igela batek eta liburu batek?
- Zer antza dute elkarren artean leiho batek eta liburu batek?
- Zer antza dute elkarren artean txapin batek eta liburu batek?
- Zer antza dute elkarren artean gamelu batek eta liburu batek?
- Zer antza dute elkarren artean besaulki batek eta liburu batek?
- Zer antza dute elkarren artean triste egoteak eta liburu batek?
- Zer antza dute elkarren artean hegazkin batek eta liburu batek?
- Zer antza dute elkarren artean hipopotamo batek eta liburu batek?

■ Akabuak edo gaindiak

- Zein da liburu baten gaindia?
- Zein da orri baten gaindia?
- Zein da hitzaurre baten gaindia?
- Zein da galdera baten gaindia?
- Zein da liburu azal baten gaindia?
- Zein da liburu baten izenburuaren gaindia?
- Zein da akats baten gaindia?
- Zein da bukaera aspertu baten gaindia?
- Zein da azal hegalaren gaindia?
- Zein da epilogo baten gaindia?

■ Hitz errepikatuak

- Liburua, hain zen interesgarria, interesgarria, interesgarria, ezen...
- Liburua, hain zen aspergarria, aspergarria, aspergarria, ezen...
- Liburua, hain zen ederra, ederra, ederra, ezen...

- Liburua, hain ongi idatzita, idatzita, idatzita zegoen, ezen...
- Liburua, hain zen argia, argia, argia, ezen...
- Liburua, hain zen potoloa, potoloa, potoloa, ezen...
- Liburua, hain zen intrigazkoa, intrigazkoa, intrigazkoa, ezen...
- Liburua, hain zen funsgabea, funsgabea, funsgabea, ezen...
- Liburua, hain zen gordina, gordina, gordina, ezen...
- Liburua, hain zen tristea, tristea, tristea, ezen...

■ Ezinezkoak

Errealitateak kategorikotasun beharrezkoak ikusteko modu bat inposatu digu. Egoera erraz horretatik ateratzea ez da erraza inorendako, batez ere horrek berarekin beste jarrera bat izatea badakar.

Hezkuntzak, baita hizkuntz hezkuntzak ere, norbanakoa bera biltzen duen gizartearen errealitatean txertatu nahi du. Integrazioaz ari gara eta ez eraldaketaz. Baina, egia esateko, egunerokotasunean, ia-ia inoiz beteko ez diren etorkizuneko ametsak ditugu.

- 1º. Liburuak eta, bereziki, liburu horien osagaiak ekar ditzagun gogora. Osagai horietako bakoitzak badu zeregina, aurretik eman zaiena, hain zuzen ere. Markatutako gidoitik ez dira sekula ateratzen. Osagai bakoitza hari funtsa ematen dion ekintza bati loturik dago. Gogora ditzagun, bada, osagai horiek: liburua, hitzaurrea, epilogoak, lege gordailua, orriko oin-oharra eta abar.
- 2º. Liburuak alde batera utzita, har dezagun ekintzen zerrenda bat. Ikasleek azkar erantzuten dute: kantatu, dantzatu, irri egin, ikasi, dir-dir egin, hotsa atera, hautsez-tatu, haizatu, menturatu, deitoratu, galdetu, jan, lo egin, herrimina izan, atsekabez hil, laster egin, jauzi egin, hil, jan, hegan egin, aharrausi egin, amets egin, txistu egin, jan eta abar.
- 3º. Orain, ekintza horiek lot diezazkiogun liburu izenari (baita haren osagaiei ere, hala nahi bada). Horren emaitza asoziazio multzo bat izan daiteke. Kontakizunak, ipuinak, metaforak irudikatzeko balagarriak izaten ahal dira. Ikus ditzagun, bada.

■ Liburu batek aharrausi egiten du	■ Hitzaurreak hiltzen du
■ Liburu batek amets egiten du	■ Epilogoak herrimina du
■ Liburu batek txistu egiten du	■ Akatsak pozez jauzi egiten du
■ Liburu bat atsekabeturik hil da	■ Orriko oin-oharrak galdetzen du
■ Liburu batek hegan egiten du	■ Editorialak irri egiten du
	■ Lege gordailuak dir-dir egiten du

Argi ikus daitekeenez, hori guztia ezinezkoa da eguneroko bizitzan. Baina, hizkuntza aldetik, halako hizkuntza metaforikoa erabiliz egin diren esaldi ezinezkoak dira eta hori bai ez genukeela galtzera utzi behar.

.....

Esaldi bakoitzak testua sortzeko modu bat agertzen du. Horietako bi soilik aukeratu ditut: “Liburu baten aharrasiak” eta “Atsekabeturik hil zen liburua”.

Ez da zaila testu labur bat goiko izenburu horiek diotena kontatuz irudikatzea baldin eta, aurretik, gure ikasleen eta gure artean testu beraren egiturazko eta testuzko edukien plangintza egiten badugu. Testua izan daiteke: kontatzekoa, deskribatzekoa edo azaltzekoa. Nork, non, noiz, zer gertatu zen, nori gertatu zitzaion, zergatik, nola bukatu zen dena?

■ **Liburu asmakizunak**

Asmakizun honek, nola ez, liburuarekin du zerikusia. Horretarako, ondoko hutsuneak bete beharko dira:

- Izena
- Deskripzioa (forma, tamainua, materiala, egitura, usaina)
- Erabilgarritasunak
- Zertarako erabil daitekeen
- Hartzaileak
- Publizitateko esaldia

Lehenik, asmakizunari izen bat eman behar diogu. Behin izena eskutan, gainerako oro egiten errazagoa izanen da.

Izena aurkitzeko, lot diezaiogun liburu hitza errealitateko gainerako eremuetan aurki dezakegun beste hitz bati: animaliak, eguneroko gauzak, fruituak, landareak, mineralak, jantziak eta abar.

Demagun animalien eremua hartu dugula langai. Besteak beste, ondokoak esan ditzakegu: arranoa, lehoia, tigrea, sugea, arratoia, mortsa, itsas txakurra, elefantea, eulia, katamotza, katua, erbia, bisigua, bisontea, txakurra, zaldia eta abar.

Ikasle bakoitzak animalia bat aukeratuko du eta liburuei lotuko die. Horretarako, bi hitzen silabak hartu eta nahi erara nahasiko ditu. Ikus dezagun, bada, zer gertatzen den liburu eta erbia hartzen baditugu.

Silabak nahasi ondoren, ondokoa dugu: liburuerbi, libierburu, bubiliruer, erlirububi, rubierlibu, bibulierbi.

Ondoren, gustukoen dugun izena aukeratu behar da. Goian aipatu diren puntuak (deskripzioa, erabilgarritasunak, hartzaileak eta publizitatea) garatu behar dira.

Liburuaren kontzeptu berri horren gainean testua idatziko dugu. Testu hori egunkari bateko berri modura aterako dugu.

Adibidez: “B. Tosigok beste liburu mota bat aurkitu du: libierburu. Irakurri bezala, liburuaren nolakotasunak eta akatsak eskuratzen dira. Horixe da bere ezaugarri nagusia”. Edo: “Zientzialari hungariarrek merkaturatu dute kritika eta sormenezko produktu berri bat: libierburu”.

Batean zein bestean, ikasleek izenburu horien edukia garatuko dute.

■ **Gustuko dut -Ez dut gustuko**

Norberak liburuekin dituen harremanak argitzen joateko, oso da egokia teknika hau. Gainera, pertsona batek liburuekin dituen antzekotasunen eta beldurren erradiografia izan daiteke. Erradiografia hori hainbat motatakoa izan daiteke:

Modurik errazena hau da: bi zutabe egin -bata “gustuko dut”-enendako eta, bestea, “ez dut gustuko”-enendako. Gero, liburuetatik gustuko dituzun eta gustuko ez dituzun kon-tuekin osatu behar dituzu.

Gustuko dut/dituz: gelan ipuinak eta eleberriak niri irakurtzea, beldurrezko eta umo-rezko liburuak irakurtzea, isil-isilik irakurtzea, taldean irakurtzea, orriak irakurri gabe utzi, liburu marrazkidunak eta hizki larridunak, hiztegian nik neuk ezagutzen ez ditudan hitzak begiratzea, ulertzen ez dudana irakasleari galdetzea, liburuak etxera eramatea, pentsarazten duten esaldiak anotatzea, zirraraz negar egitea, deskripzioak kopiatzea, gustuko dut “Gizurde urdinen uhartea”, gelan irakurtzen ditugun liburuen gainean ahots goraz hitz egitea, liburuen kritikak egitea, pertsonaien grafikak egitea...

Ez dut/dituz gustuko: liburuak irakurtzea baina bai gustuko dut moto eta autoen gai-neko komikiak eta aldizkariak irakurtzea; ez dut gustuko “Altxorren uhartea”, iraku-rritako liburuen gaineko fitxa sinpleak egitea, jendeak pipak liburutegian jatea, batzuk liburuak lapurtzea, irakurritako liburuen laburpena egitea, irakurtzea irakurtzeagatik, ira-kurtzea irakasleak hala nahi duelako, oso eleberri luzeak irakurtzea, gazteen arazoak dituzten eleberriak irakurtzea, helduek ikasleek irakurtzen dutenaz etengabe hitz egitea.

Zailena izan ohi da esaldi berean gustuko dudana eta gustuko ez dudana batera idaztea baina muga batez: gustuko dudana objektua eta gustuko ez dudana alfabetoaren ordena-ri jarraikiz lerrokatuko dira.

Atsegin dut Alizia Lurralde Miresgarrian, ez ordea Alizia Plaf...

Atsegin ditut Bonoboak, ez ordea Bizarrurdin

Atsegin dituz eskimalen Ipuinak, ez ordea Zientzia fikzioa

Atsegin dut Christieren Hamar Beltx, ez ordea Dickens

Atsegin dut pertsonaiak aztertzea, ez ordea kontakizun baten Egitura ikertzea

Atsegin dituz alegiak, ez ordea beren baitan duten, irakasleak dioenez, Filosofia

Atsegin dut Maria Gripe, ez ordea Botadun Katua tipo bezala

Atsegin dut Istorio Amaigabea, ez ordea Cronopiosen istorioak

Atsegin dituz Pachecoren Irudiak, ez ordea istorioak Asmatzea

.....

Atsegin ditut Hitz-jokoak, ez ordea gramatika-argota
 Atsegin dut Karana, Izurdeen Uharteko neska, ez ordea Kafka
 Atsegin dut Altxorraren Uhartea, ez ordea liburu horri buruzko iruzkinak
 Atsegin dut gauzei beren izenez Deitzea, ez ordea jendeaurrean Negar Egitea
 Atsegin dut Max eta Moritz, baita Momo ere, ez ordea Manolito Laubegi
 Atsegin dut Nikolas Txikia, ez ordea Haurrak protagonista paperean
 Atsegin ditut ipuinetako Ogroak, ez ordea Oliver Twist (zinean bai)
 Atsegin ditut Perraulten ipuinak, ez ordea Peter Pan, ezta Pritze Txikia ere
 Atsegin ditut Sapo eta Sepo saguak, ez ordea Robinson Crusoe
 Atsegin ditut Stevenson eta Salgari, ez ordea esna Amets Egitea
 Atsegin dut Tom Sawyer, eta Twain ere bai, ez ordea azalpen gogaikarriak
 Atsegin dut Ursula Wolfel, ez ordea hiztegia etengabe erabiltzea
 Atsegin dut beti zintzok Irabaztea, ez ordea haien Mendekua
 Atsegin ditut Wellen elaberriak, ez ordea Woody Allen
 Atsegingo nuke Ni neu izatea, baina badakit, oraingoz ez naizela
 Atsegin dut Xanadu, zer esan nahi duen ez badakit ere, ez ordea X-a bakantzea
 Atsegin dut Zimnik eta Dahleko Super Azeria, ez ordea bazterrak nahastea

7. Hiztegia

Ikasleek beren hiztegi propioa egin dezakete. Oinarria liburuia izanen da, baita bere ustez liburuaren inguruko kontzeptu guztiak ere, berdin haren *hiztegi arlokoak*, berdin haren *eremu semantiko* berekoak. Behin prestaturik, ikasleek definizioak edo esanahi aldetik hurbiltzen zaizkionak emanen dituzte.

- **Gela.** Gune mehar eta argi eskasekoa. Gehien atsegin dudana jardueretako bat han egiten da: irakurtzea.
- **Liburutegia.** Apalategi batean hasi eta nire irudimenean bukatzen den gunea.
- **Iruzkina.** Testuek iruzkina behar dute, irakasleak kritikatzeko ari den testuaren gainean esateko duen guztia azal dezan.
- **Dickens.** Ez dut ulertzen nola gustatzen ahal zaion horrenbeste irakasleari, idazle horrek beti gauza tristeak kontatzen baditu.
- **Azterketa.** Liburuaren magiak ez du deus egitekorik hor.
- **Fitxa.** Irakurketarena. Zergatik soilik ikasleek bete behar ditugu?
- **Gulliver.** Eleberriko pertsonaia. Nire kurtsoan Gulliver bat baino gehiago dago. Batez ere atsedendian.
- **Umorea.** Gure adinekoendako idazten diren liburuetan ez da maiz ageri.
- **Haurrena.** Gazteenek leitzen duten literatura haur literatura omen da. Nik nahiago nuke helduendako literatura deituko balute.
- **Gazteena.** Gazteok, ustez, irakurri ohi dugun literatura gazte literatura deitzen dute gazteendako idatzi baita. Garbi esanen dut, nahiago dut helduendako idatzi ohi den literatura.
- **Kipling.** Ez dut sekula idazle horren deus ere irakurri nahiz eta haren lanetan oinarritutako bi film ikusi ditudan. Noizbait irakurriko ditut haren lanak.

- **Literatura.** Gustu handiagoz hartuko nuke literatura klasea baldin eta irakasleak horrenbeste hitz eginen ez balu. Susmoa dut ez dela Quevedo non jaio zen eta zein izan zen Urrezko mendearen poetarik bikainena ulertzeko gure gaitasunaz batere fidatzen. Zer da bikainena?
- **Euria.** Nire buruari galdetu behar diot zergatik euria egiten duen egunetan irakurtzea atseginago dudan, ezen ez bero denean baino.
- **Machado.** Irri egin dut jakin dudanean gaztelaniaz machado hitzaren esanahia mozkorra dela. Horrek esan nahi du Antonio Machado poeta Antonio Mozkor deitzen ahal zela.. Bitxia, gero!
- **Eleberria.** Eleberriak irakurtzea atsegin dut. Nire buruarengandik anitz ikasten dut.
- **Txepelkeria.** Ez dut eragozpenik hori baieztatzeko: oso pertsona txepela naiz eta, zenbaitetan, eszena txepel eta guriek negar eraginarazten didate.
- **Hurrenkera.** Irakurtzearen gauzarik okerrera da oso irakurtzeko hurrenkera zehatza segitu behar dela. Irakasle andreak dio irakurleak hainbat orri irakurri gabe utz ditza keela eta hori egitea askatasunaren erakusle dela. Ez dakit, bada. Nik, orri bakar bat irakurri gabe utzi eta haria galtzen dut, ez bainaiz deusetaz ere jabetzen. Uste dut anitzek ez duela gustuko irakurtzea irakurtzeko hurrenkera diktaduraren pareko delako.
- **Pazientzia.** Gutako gehienok dugun bertutea da. Irakasleek ez dute pazientziarik. Gauzak astira aztertzea oso da neketsua. Pazientzia eta irakurtzea ia-ia sinonimo dira.
- **Quiroga.** Horacio Quirogaz ari naiz. Haren ipuinak gehiago gustatzen zaizkit irakasleak fotokopietan ekartzen dizkigun Ambrose Biercerenak baino.
- **Rodari.** Kokoteraino bukatu dut Rodarirekin. Irakurtzen ikasi nuenetik, irakasleek beti behartzen gintuzten hura irakurtzera.
- **Steinbeck.** Ez dut sekula ahaztuko irakasleak Harribitxia liburua zein kurtsotan irakurri zigun. Bi hilabetez jarraian buruan izan nuen koaderno batean kopiatu nuen liburuko esaldi bat: “Bizi-bizi maitatzea ez da ona osasunerako”.
- **Izenburuak.** Neska gazteagoa nintzenean, liburuen izenburuak nituen gidari. Orain, aldiz, ez. Ikasi dut horietako anitz oker aukeratu dituztela. Ez datoz bat gero liburuan esaten denarekin.
- **Unibertsala.** Kurtso osoan, irakasle andreak klaseak hastean ipuin bat irakurtzen zigun. Mundu zabaleko ipuinak ziren, hots, afrikarrak, eskimalak, indiarrak, txinatarrrak, irokiarrak, ingelesak, errusiarrrak, euskaldunak, espainiarrrak, katalanak, frantse-sak, gallegoak, italiarrak, errumaniarrak eta tibetarrak. Guri deus ere esan gabe, irakasleak argi eta garbi erakutsi digu kontinente guztietako gizakiak berdinak garela.
- **Bokazioa.** Atsegin ditu idaztea eta irakurtzea. Hala ere, ez dakit etorkizunean idaztetik bizitzen ahalko naizen. Nola egin ohi da bat idazle?
- **Wölfel, Ursula.** Idazketaren bidez irri eginarazten didan pertsona, niretako izaki gorena da. Nik estimatzen dut, triste izateko joera baitut nik.
- **X.** Nire aitak dio bizitzan ezagutzen ez ditugun gauzak argitzen joan ohi garela eta guri dagokigun ixa edo gakoa aurkitzen dugunerako bizitza joan zaigula. Non eta irakurtzen eta idazten iragan, bost axola.
- **Yago.** Shakespeare lanaren pertsonaia baten izena da. Nire katuari edo txakurrari jartzeko aproposa iruditzen zait.

.....

- **Zimnik.** Garabia lana idatzi zuenaren deitura da. Beti garabi batean bizitzea erabakitzen duen gizon baten istorioa kontatzen digu. Geroago, beti trapezio batean igota bizitzea erabaki zuen gizon baten istorioa irakurri nuen. Kafkak idatzi zuen. Eta Cosimo izeneko beste haur baten istorioa ere irakurri nuen. Bizitza osoa zuhaitzetan zintzilik eman zuen, Baroi jauzilaria bihurtu arte. Calvinok idatzi zuen istorio hori. Hiru istorio horiek hunkitu ninduten oso.

8. Hiperboleak

Proposamena oinarritzkoa eta xumea da: denbora batez -astebetez, hamabost egunez, hilabetez- liburuen gaineko esaldiak, ordurarte irakurriak edo entzunak, bilduko ditugu, gure ustez, gehiegikeriak edo hiperboleak direnak.

Horretarako, nahikoa da egunero egunkarietako kultur orriak irakurtzea. Arraroa da eguna idazleren bat edo literaturako sasi-jakintsuren bat agertzen ez dena.

Ondoren paratu ditugunak, seigarrena kenduta -hori Amicisena baita nahiz eta horrek ere Zizeroni kopiatu-, hainbat hedabidetan agertu ziren. Ez dut gainerakoen egileei dagokienez, ez dut haien izenik paratuko gehiegikeria horien sorginkeria itsugarri oro saihesteko.

- “Ez nuke libururik gabe zer eginen jakinen, hilen nintzateke”
- “Liburuek aske egiten gaituzte”
- “Benetako askatasuna liburuen irakurketan dago”
- “Irakurtzen dutenek soilik pentsatzen dute”
- “Zoriontasuna eta liburuak sinonimo dira”
- “Libururik gabeko etxea duintasunik gabeko etxea da”
- “Bizitzen ez dakitenek maite dituzte soilik liburuak”
- “Aski da ikustea zer jarrera hartzen duen edonork zer liburu irakurtzen duen jakiteko”
- “Mundua oker doa jendeak ez duelako irakurtzen”
- “Noizbait irakurtzerik ez banu, neure buruari tiro eginen niokeen”

Zer egin daiteke esaldi edo antzeko horiekin?

- 1º. Lehenik: esaldi horiek zer esaten duten eta zer esan nahi duten ulertu, eta ikusi kontzeptuen malabarismo hori zilegi den eta esaldiak berak hori egiterik uzten duen.
- 2º. Bigarrenik: esaldi horiek esanahi aldetik egokiak edo desegokiak diren jakiteko eztabaida piztea.
- 3º. Hirugarrenik: geure buruari galdetu ea nork har ditzakeen bere gain baieztapen horiek.

- 4º. Laugarrenik. Ia-ia dogmatzat eta nahitaez baliogarria den egiaztat har daitezke esaldi horiek. Horiek lantzeko sistemarik onena hurrengoa izan daiteke: dauden-dauden bezala hartu eta gero galdera ikurra jarri.
 - Liburuek aske egiten gaituzte?
 - Benetako askatasuna liburuetan dago?
 - Irakurtzen dutenek soilik pentsatzen dute?

Jarduna gogorra da baina, nork esan du pentsatzea gogorra ez denik?

9. Atsotitzak

Liburua hitza hainbat atsotitzatan eta izaera paremiologiko antzeko makina bat adieratan ageri da. Seguru gaude horietako zenbait ikasleek ezagutzen dituztela. Haiei eskatu behar dizkiegu. Beharbada ez dute bat bakarra ere gogoratuko. Hori gertatzen bada, irakasleak prest izan beharko ditu atsotitz tradizional eta klasiko batzuk. Hementxe dituzu, irakasle, hainbat atsotitz. Nolakoak diren ikusita antzematen da aspaldi-aspaldi-koak direla eta ia-ia ez ditugula ezta ezagutzen ere.

Liburuek, zenbat irakasten diguten!, baina urreak, nola pozten gaituen!

Esaldi honekin erantzuten diete diruzaleek jakinduria goraiatu eta aholkatzen dutenei.

Tontoa izateko, liburuak oztopo dira.

Batzuetan tonu barregarrian esaten da norberagatik, zera adierazteko, naturak jarritako tokitik liburuek aterako ez dutenez, ez duela ikasten. Baina orokorrean, norbaiti ez ikasteko hainbeste esateko modu bitxia da.

Alferrikako sermoi eta liburuak, lehenak ez ditzaten izan zure alabek eta bigarrenak ez ditzaten irakurri zure semeek.

Denbora galarazten duten elkarrizketa txepelen eta alferrikako irakurgaien aurkako aholkua.

Hau da utzitako liburu guztien patua: batzuetan galdu egiten dira eta beti, hondatu.

Honekin liburuak ez uztea gomendatzen da, ondorioak jasan nahi ez badira.

Liburu itxiak ez du letradurik egiten.

Liburuek, erabili ezean, ez dutela probetxurik ematen erakusten du.

Utzitako liburua, galdutako liburua.

Ez itzultzea normalena delako.

Jainkoak libra gaitzala liburu bakarreko gizonaz! (Covarrubias).

Gizon jantzi edo jakitunak bere iritziak neurtu, eztabaidatu, alderatu, egiaztatu eta lotu egiten ditu eta bide horretatik bakarrik lortzen du bere jakituria osatzea.

.....

■ **Atsotitzekin egin daitezkeen jarduerak**

- 1^a. Lehenen. Lehenik, ulertu behar ditugu, ez baita erraza izaten hori. Bereziki ares-tian aipatu ditugunak. Gero, ulertu behar ditugu, bai haien irudizko adieran, bai haien benetako adieran. Azkenik, jakin beharko dugu atsotitz horiek eta beste batzuk zein egoeratan esan daitezkeen.
- 2^a. Bigarrenen. Atsotitzak asmatu. Ez da batere erraza asmatzea. Eskura ditugunekin jolastea, haiek erabiltzea erraza da. Eskura ditugun atsotitz batzuen egiturari helduz gero, sorta osatu beharko litzateke, benetan edo txantxetan.

Ikus ditzagun ondoko hauek:

- Liburu on bati hurbiltzen zaiona,
- Goizean goiz irakurtzen duenari,
- Libururik ezean,
- Liburuak, zenbat eta lodiago,
- Ahaide eta liburu zaharrak,
- Liburu txar,
- Ez dago liburu txarrik,
- Asko irakurtzen duenak,
- Lehenbizi irakurtzen duenak,
- Liburuak erein eta
- Oparitutako liburuari
- Liburu on,
- Esan zer irakurtzen duzun
- Irakurleak uste du
- Gero eta gutxiago irakurri,
- Liburu gaitza,
- Liburu itxian,
- Gaez liburu guztiak
- Irakurle onari,
- Gaizki irakurtzen duenak,

10. **Aforismoak**

Espasaren hiztegian aforismo hitzaren sinonimotzat jotzen ditu ondoko hauek: adagioa, ateraldia, apotema, axioma, ditxoa, formula, esakunea, paremiologia, pentsamendua, araua, atsotitza, erregela, esaera, doktrina laburra.

Zein da atsotitzaren eta aforismoaren arteko desberdintasuna? Atsotitza herritar arrunten ondarekoak dira. Aforismoak, aldiz, eliteko jendearena. Guztiak erabiltzen dituzte atsotitzak. Aforismoak, aldiz, ez. Forma aldetik begiratzen badugu, atsotitzak bi zati izan ohi ditu. Aforismoak, aldiz, ez.

Esanahi aldetik, atsotitza errazago ulertzen da, ulertu nahi duenarendako beti ere. Aforismoak, aldiz, kontzentrazio maila handiagoa eskatzen du.

Hala ere, formaren eta esanahiaren aldetik aforismoa atsotitza baino zailagoa eta kriptikoagoa bada ere, errazago asmatzen da aforismo bat, ezen ez atsotitz bat.

Aforismoak egiteko teknika Oulipo-ren¹³ eta G. Perec-en¹⁴ lanetan aurki dezakegu. Abiapuntua gramatika bera da, gramatikan aforismo gehienetan komunzki erabili ohi diren formula multzoa dagoelako. Adibidez:

- A, B-tik C-raino bide-tarterik laburrena da
- A, beste bide batzuk erabilita B-ren jarraipena da
- A-ko pixka batek B-tik urruntzen gaitu, A-ko anitzek hurbiltzen gaitu
- A txikiak B handiak egiten dituzte
- A ez litzateke A izanen ez balitz B
- A-n dago zorientasuna, ez B-n
- A eritasuna bada ere, B haren sendagaia da
- A-tik barna bazoaz, ez zara inoiz B-ra iritsiko
- A-ren itxurak B-ren sakontasunak dira
- A kexu ageri da B aukeratu beharrean A aukeratzten baituzu


Hiztegian ageri zaizkigu hitz bikoteak edo hirukoteak edo laukoteak. Izan daitezke: sinonimo faltsuak (amodioa/adiskidetasuna, hitza/hizkuntza); antonimoak (bizitza/heriotza, forma/fondoa, oroitzapena/ahantzura); fonetikoki hurbil dauden hitzak (lege/fede, amore/umore), gizartearen erabilerak taldekatutako hitzak (heriotza/zigorra, igitaia/mailua, zientzia/bizitza).

Lehenik, ikasleei eskatu behar diegu hitz bikoteak, hirukoteak, laukoteak, edo sinonimoak, antonimoak eta paronimoak egin ditzaten. Gero, liburu hitzarekin parekatu behar ditugu. Demagun beti egin ohi den erlazio mota egiten dugula: liburua eta bizitza, liburua eta heriotza, liburua eta aske-askatasuna.

Prest gaude, beraz, hainbat aforismo sortzeko. Ikus dezagun, bada.

- Liburuak bizitza sendagai duen eritasun dira
- Liburuak ez lirateke liburu izanen askatasunik gabe
- Liburuak ematen diguna, liburuak kentzen digute
- Zorientasuna liburuetan dago, ez bizitzan
- Liburuaren artean bazabiltza, ez duzu inoiz benetako askatasuna erdietsiko
- Liburuak gizakiak urruntzen dituzte; bizitzak, aldiz, hurbiltzen ditu

Bukatzeko, gogoan izan dezagun Gabriel Zaidek diona: “aforismoa ez da laburpena, hura zabaltzen saiatzen denean abian jartzen den gehiegieria da”¹⁵.



■ 13. Oulipo, *Atlas de littérature potentielle*, Gallimard, Paris, 1988.
■ 14. G. Perec, *Penser y Clasificar*, Gedisa, Bartzelona, 1987.
■ 15. G. Zaid, *La feria del progreso*, Taurus, Madril, 1982.

.....

Bigarren zatia

LIBURUAREN OSAGIAK

Liburuaren istorioa gai nagusitzat duten ikerketak aztertuz gero, konturatuko gara liburuaren aldaketek ere irakurlearengan eraginik sortzen dutela eta aldaketa horiek irakurlea beste pertsona bat bihurtzen dutela eta irakurtzea beste egintza desberdin bat egiten dutela, denak horretan murgiltzen baitira, non irakurri eta nola irakurri behar denetik hasi eta zertarako irakurri eta pertsonaren zer perspektibatik irakurri arte.

Adierazi dudan horren adibide bat dugu George Steiner-ek idatzi *Pasión intacta*¹⁶ liburuan. Zehazki hori egiten du “Maiz irakurtzen ez duena” izeneko kapituluan, Chardin-ek pintatutako “Filosofilari irakurlea” erretratuaren iruzkina egiten duenean, alegia.

Kapitulu horretatik hainbat hitz hartu nahi nuke, hain zuzen ere egileak, Chardinek erretratutako irakurle horren kanpoko alderdiez hitz egiteko, erabiltzen dituenak. Denetan deigarriena da erretratutako pertsona kapa eta txapelaz jantzia ari dela irakurtzen. Hau da, irakurleak ez du topo egin nolanahi eta zabar jantzita dagoen pertsona batekin. Pertsona hori behar bezala prestatu da irakurtzeko. Lagun bat bisitatzera joan izan balitz bezala. Garai haietan, irakurtzea ez zen, jakina, nolanahiko jarduna. Irakurtzea ez zen inola ere ustekabeko eta ezusteko egintza, honako honetan bederen ez da horrela ageri. Topaketa atsegina zen eta, uste dugu, norberaren borondatek ateratakoa. Irakurlea liburuaren bila abiatzen da adeitsu, arreta eta jarrera abegikorraz -ez da erraza denek berdin jokatzea eta, are gutxiago gaur egun-.

Hala nahi duten irakasleek goian aipatu artikulu hori eskuratu ondoren arretaz irakur dezakete. Saiogile frantsesaren hausnarketak abiapuntu harturik, beharbada irakasleek liburuak irakurtzen jartzeko modu ohiko eta ez hain ohikoak planteatzeko moduren bat aurkituko dute.

Edo, nahiago badu, Steinerren testua Maquiavelok 1513an idatzitako gutun honetaz lagundu dezake: “Gaua iristen denean, etxera itzuli eta nire liburutegian sartzen naiz. Atalasean erantzten dut lohiez beteriko eguneroko janzkia eta kuriakide eta erregeek erabiltzen zituzten moduko oihalak jazten ditut. Txukun jantzita antzinako gizonen gorte zaharrea sartzen naiz, adiskidetasunez hartzen nautelarik, eta nirea bakarrik den jaki hartaz elikatzen naiz, harentzat jaio naiz eta. Ez naiz damutzen haiekin hitz egiteaz, ezta haien ekintzen zioaz galdetzeaz ere, eta haiek gizatasunez erantzuten didate. Lau orduz ez dut ez gogaitasunik ez nekerik sentitzen, kezka guztiak ahazten ditut, ez diot beldurrik pobreziari, heriotzak ez nau ikaritzen”.

■ 16. Siruela, Madrid 1997.

Suposatzen dut aurreko testuek erakusten duten begirunezko jarrerak ez duela zerikusirik gaur egun liburuetara hurbiltzeko ditugun moduekin. Inork ez ditu jазten jaietako arropak irakurtzeko, are gutxiago, egintza hori eguneko zereginetan garrantzitsuenatzat izan. Lehen testuan nahiz bigarreanean irakurle—mota arretatsua aurkezten zaigu, presarik gabekoa, irakurtzen emandako denbora bere bihotza eta adimenarentzat gozamina dela dakiena. Dena dela, Chardin, Maquiavelo eta Steinerren irakurlea ez dugu maiz aurkitzen.

Bi testu hauek nire ikasleei irakurri nizkienean, ezin zuten hura sinetsi. Ezin zuten sinetsi liburu bat irakurtzeko hainbeste imintzio egitea beharrezkoa zenik. Haatik, imintzio horiek gaur egungo espazio-denborazko koordinatuetara bihurtu eta gero, ez zeuden hain ziur beren kritika errukigabeez.

Zer eskatzen digu liburu baten irakurketak? Zer tratamendu “fisiko” ematen zaie gaur egun gure eskuetara iristen diren liburuei? Beharbada, gauzei eta pertsonaei ematen diegun bera. Guretzat esangurarik ez duena zigorkatzearen edo axolagabetasunaren menpe erortzen da.

Eta hemen, noski, testuliburuari buruzko hausnarketa egin ahalko litzateke. Hauek, ikasleen bizitzan duten ohizko presentziagatik, eragin ideologiko eta afektibo aipagarriak dituzte haiengan.

Alejandro Rossik dioenez, “ irakurketa kaskarra genero batzuek lortzen duten arrakastaren ondorioa da. Gure arreta testuliburu eta testigantza-liburuaren artean banatzen da. Bien artean osatzen dute “testu baliosaren erretorika”, zeinek kodetzen dituen lan batek garrantzitsu, esanguratsu eta ulergarritzat hartua izateko bete behar dituen ezaugarriak”.

Zehazkiago testuliburuaz ari dela, zera gehitzen du: “Eskuliburutxo ilunetik hasita vademecum koipetsuak arte, etekina ateratzen dio jendearen usteari, hau da, ikasi egin behar dela, eta, oroz gain, azkar ikasi. Pedagogiak berrerosi egiten du, eta hezkuntzaren aldeko borrokan beharrezko eta ezinbesteko tresna gisa aurkezten du; honi gehitzen badiogu hezkuntzak maila goragoko egoera batetara - hau edozein dela ere- eramaten gaituenaren ustea, testuliburuaren ideologiaren aldareetara jasotzeko pauso bakar batera egonen gara. Hau gertatuz gero, ez dago ezer egiterik. Definizioz publiko ezikasi bati zuzendurik doazenez, ohizkoa gertatzen da sinpleak izatea, zehaztasun gutxiak, eta askotan dogmatikoak ere bai. Batzuetan katixima edo errezeta-liburuetatik bereiztea zaila izateak kulturaren dohatsuak bakarrik beldurtuko ditu. Testuliburu bat idazten duena misiolari bihurtzen da, momentu honetan Hirutasunaren misterioaz hausnartzea ez dagokiola ulertu duen gizakia”.

Baina testuliburuaren eraginaren kaltegarriena zera da, “zenbait gai prozedura estilistiko zehatz batzuekin elkartzera ohitarazten dutela irakurlea. Horrela, arazo politikoez aritzerakoan prosa didaktiko, aseptiko eta informatzailea erabili behar da; bertuterik

.....

handiena literaltasuna da, eta onartutako apaingarri bakarra inoiz nahikoa irakurri gabeko klasiko txalogarrien aipuak dira. Errepikatzea ez da akatsa, eskola zaharra baizik.

Aipu luze honekin bukatzeko, “ hizkuntza ez da biktima bakarra. Biktima nagusia formula urri eta monotono bakar batzuen ezagutzan trebatua izan den irakurlea da. Estetikatik eta kritikatik urruntzen duen erretorika ahula erakutsi diote. Entseia edo liburua betiko lelotik pixka bat urruntzen badira zalantzan murgiltzen da; honenbestez, erraz asaldatzen den irakurlea da. Ate anitz itxi dizkioten irakurlea. Lotuta daukan irakurketa ankerra, finean, lengoaia erregistro minimo eta klasifikatuetara murriztearen emaitza da. Baina lengoaia murriztu baten ordaina beti da pentsamendu hankamotza”¹⁷.

Ez dut testuliburuaren kontrako kritika sakon eta orokorra egin nahi. Nire asmoa irakasleak xaxatzea da, testuliburuak balizko irakurleen konfigurazio mentalean duten eraginari buruko hausnarketa egin dezaten. Liburuei buruz dugun irudia testuliburuak izaten den iruditik eratorria bada, eta dakigularik ikasleek zer pentsatzen duten hauetaz, ez da erraza lortzen ikasleek liburuei buruzko ideia ona eta positiboa izatea.

Eta ongi dakigu, liburuak norberaren bizitzan garrantzirik ez badute, gauza arruntan moduan erabiliko direla, inongo begirunerik gabe, hondatzeraino iritsiz, bereziki gureak ez direnean.

Liburuak gure bizitzaren zati badira, beraien ezer ez zaigu arrotza. Baina, nola bihurtzen dira liburuak pertsona baten bizitzaren zati esanguratsu?

Galdera honi erantzutea zaila eta konplexua da. Txikitatik liburuekiko interesa piztuz, esaten da eskuarki. Nik ez dut hori zalantzan jartzen, baina hainbeste ardua egokitzen zaizkio haurtzaroari, ezen neure buruari galdetzen dioten zergatik ez dugun gizakiaren eboluzio-gaitasunean konfidantza gehiago izaten, hain ezkor izateari utzita. Adin batean agortzen al da dena? Gizakiaren aukera guztiak haurtzarotik halabeharrez determinatuak al dira?

Adin guztiak badute desiorako joera, zergatik ez irakurtzeko ere? Zergatik irakurtzen ez duen heldua betiko galduta dago? Ez al da errazegia helduen ezinegona azaltzen duten arrazoiak haurtzarora zokoratzea? Ez al du bada gizaki helduak liburuaren munduan autodeterminatzeko borondaterik? Txikitan ez baitzuten irakurri!

Liburuak norberaren bizitzan garrantzia hartzea zehazteko nekezak diren fenomenoak uztarturik dago. Ez da erraza ere pertsonaren osaera afektibo nahiz intelektualean izan ditzaken epe motz eta luzeko ondorioak argi ezartzea.

■ 17. A. Rossi, “La lectura bárbara”, en *Manual del distraído*, Anagrama, Bartzelona, 1997.

1. Begiradaren sareaz

Eskuarte hartzen dugun edozein liburuk eskaintzen dizkie gure begiei datu eta sentazio-mukurua, zeinetatik igarotzen garen segundu bakar batez ere gelditu gabe. Horietako askok zer esan nahi duten ere ez dakigu. Zergatik? Agian, horietako askoei ez diegulako erreparatu ere egiten.

Eman dezagun irakurtzea adi egoteko era pribilegiatua dela. Begirada arreta lantzeko tresna hoberena dela. Ikusteko jaiotzen bagara eta begiratzeko heziak bagara, onuragarria izango da ikasgelako edozein liburu arreta handiz begiratzea eta ahots garaiaz ahoskatzea bere kanpoko nahiz barruko ezaugarri nabarmenenak.

Egilearen izenaz gain, liburuaren izenburua, argitaletxea, bilduma batekoa izanez gero, haren izena, zein beste kontzeptu daude liburuaren baitan, berarekin batera sortzen direlarik?

Prozedura bitxia. Laster arbela terminoz beterik geratzen da:

“Marjina(k), numerazioa, papera, eskaintza, orrialdeak, bizkarrak, bukaera, irudiak, argitalpen urtea, lehen argitalpena, bigarren argitalpena, lerroaldiak, azal-egalak, prezioa, letra mota ezberdinak, atalak, azken hitzak, hitzaurrea, sarrera, egilearen argazkia, orrialdearen behealdeko oharra, tinta ezberdinak, hutsen zerranda, inprimatzailea, tailer grafikoak, inprimategia, mapak, azalak, aurkibidea, copyright-a, ISBNa, sinopsia, liburudenda, orriaren goialdeko oharra, itzultzailearen oharra, bandak, ex libris, irudigilea, argitalpen herria, egilearen argazkia, barra kodea”.

Hitz hauek guztiak begirada adi batez jaso ziren gelatik barrera zeuden liburu batzuetatik. Hauetako asko berehala antzeman zituzten. Beste batzuk, ordea, berri-berriak gertatu zitzaizkien.

Zer egin hitz multzo honekin? Mugimenduan jarri. Nola?

2. Liburua mugitzen

■ Adierazlea

Lehen lana hitz bakoitzaren adierazlea aztertzea izan zen. Kontzeptu horiek orri txurietan idaztea. Ortografia akatsik gabe. Gero, ahots garaiaz ahoskatzea, entzungo genituen azken aldia balitz bezala. Garrasirik gabe eta begirunez. Kontzeptu haietako bakoitza sekretu baten atea irekiko zuen giltza balitz bezala.

.....

Hitz bat multzotik urruntzea, isolatzea eta azalartzea esperientzia bitxia da. Hitz hori ahots garaiaz ahoskatzen duzu minutu batzuetan eta zerbait arraroa gertatzen da garunean. Zure bizitzan lehenengoz aurkitu duzunaren hasierako sentsazioa duzu, etengabe erabiltzen baduzu ere: Izenburu. IZENBURU. *Izenburu*. **Izenburu**. Izenburu.

Egizue ahots tonu posible guztiekin. Puntu batera hurbilduz eta berarengandik urrundu.

Horrela egiaztatuko dugu nola hitz soil batek orain arte ezezaguna zen distira berreskuratzen duen oroimenean.

■ ISBNaren eta copyright-aren kaligrama

Ustez esan nahi zutena (guretzat) kaligrama moduan erreproduzitzea proposatu zen. Bakoitzak zegokion ardura bere gain hartu eta ahal zuen moduan marraztu zuen bere irudimen analogikoak agindutakoa.

Nola egin marjina baten kaligrama? Eta *copyright*-arena? Eta ISBNarena? Ba, batzutan, inola ere ez. Sormena ez baitago edozeinen eskura, eta are gutxiago, haur batena.

Sormenak berau lantzea eskatzen du. Eta bere garapenaren aldeko haizerik ez badabil, nahi duzuna esan, baina ez da berezko dohaia. Edo, horrela bada, egoera landugabea, oso landugabea, behar du izan. Hortaz, beharrezkoa da burutazio sistema baten bidez lantzea. Sormena ez da garatzen lantzen ez bada. Eta hori abiapuntutzat zerbait hartuz, konkretua edo abstraktua, ezerezetik sortzea ezinezkoa baita.

Kaligramak ez badu funtzionatzen, hezkuntza instituzioak ia ahazturik dituen beste ez-idatzizko baliabide batzuegan aurkituko dugu babesia. Inorentzat ez da garrantza izan zatar-paper mihisetan hitz hauek marraztea atentzioa emateko, adi ez dagoen hainbeste ikusleren begirada erakartzeko.

Hori bezain erraza: munduko arreta guztiarekin hitz bat idazteari eskaini denbora. A ze lelokeria, ez da hala? Proba ezazue, eta gero hitz egizue gauzaren ezagutzarekin, ziur arrazioa badakizula eta. Jendeak teoria baino hobeto jakin ohi du gezurtapena eta.

■ Orain, adierazia

Adierazle horien zentzua hiztegi eta entziklopedietan bilatu. Batzuek ezusteko bitxiak ematen dizkigute, esaterako marjina hitza hain anbigua dela, ezen gauza asko izendatzeko balio duen.

- **Sinopsia.** Beraien artean harremana duten gauzak erakusten dituen antolaera grafikoa, multzoaren ikuspegia errazten duelarik; eskema. Gai baten agerpen orokorra, bere ildo nagusia azalduz. Sumario edo laburpena.
- **Goarda.** Koadernatzaileek liburuen hasieran eta bukaeran jartzen dituzten orri txurietako edozein.
- **Marjina.** Gauza baten muturra eta ertza. Errekaren, zelaiaren ertza. Eskuz idatzitako, inprimatutako, grabatutako, etab. orrien lau ertzetan geratzen diren gun zuriak, eta konkretuago, eskuinekoa edo ezkerrekoa. Gaztelerazko esamoldeak: *Al margen (alde batera)*: pertsona edo gauza batek dagokigun gaiarekin zerikusirik ez duela adierazteko erabiltzen da. *A media margen (marjina erdian)*: orrialde inprimatu edo idatziaren luzeraren erdia zurian utziz. *Andarse por los márgenes (inguru-minguru ibili)*: erroak utzirik adarrei lotu. *Margenar*: ohartxoak idatzi testuaren marjinean. Marjinak utzi.
- **Azal-hegalak (Solapo, solapa, solape).** Latineko *so* eta *lapis (losa)* hitzetatik dator. Gauza baten zatia, beste zerbaitek estaltzen duena, teilatuko teilen moduan. *Solapar*: papar-hegalak ipini jantziei. *De forma solapada (maltzurki)*: bere pentsamendua maltzurki eta zuhurtziaz gordetzen duen pertsona. *Solapa* (papar-hegal): bularrari dagokion jantziaren zatia, jantziaren gainetik kanpoaldera tolesturik doana. Liburuaren azalaren albo-luzapena, barrualdera tolesten dena eta oharrak edo iragarkiak inprimatuta dituen.
- **Orriaren goialdeko oharra (titulillos).** Inprimatutako orriaren goialdean jartzen den izenburua, zer gaiari buruz ari den jakiteko. Gazteleraz bada *andar en titulillos* esamoldea, garrantzi gutxiko gauzetan, kortesia eta antzeko gaietan erreparatzea esan nahi duena.

■ Kaikuen arteko elkarrizketa

Hitz hauen arteko elkarrizketa bati bide eman. Horretarako, ikasleek haien azalean sartu behar dute. Pertsona bihurtu, haiek goraiatzeko edo gutxiesteko, haien funtzioa eta beharra erakusteko.

Lege-gordailua, adibidez. Inork ez dio arretarik eskaintzen. Aitzitik, zein garrantzitsua gertatzen den, bereziki bi pertsona auzitan dabiltzanean testu baten jabetgo edo originaltasuna dela medio.

.....

Hasitako elkarrizketak bisiguaren izaera hartu dezake. Bakoitzak bereari darraikio eta inork ezin dizu arrazoia kendu. Besteak nahi duena esan dezala, zuk zeurearekin jarraituko duzu. Ikaskidea *marjina* kontzeptuaren esanahiak bata bestearen atzetik aipatzen ari dela entzuten duzu, baina ez diozu azenturik ere aditzen, hain murgildurik baitzaude *titulu* hitza garatzen. Ionescorena dirudien gidoi hau grabaturik, apaintzen da eta bazkaldarrek gustuko duten saltsa gehitzen zaio. Ikus ditzagun bakarrizketa batzuk, dagokion alferrikako sintaxi eta ortografiaz birrindu eta gero.

■ **Orrialdearen behealdeko oharra**¹⁸. Neure burua entziklopedia batean bilatu dut, eta ez dut aurkitu. Jakin nahiko nuke zergatik deitzen didaten horrela eta nork asmatu zuen lehenengoz esamolde hori. Zeren eta, izena jartzen hasita, *orrialdearen eskuzko oharra* edo *orrialde-behatza* ere izan nintekeen. Horrela izendatu izanak orrialdeak gizakiaren gorputzarekin nolabaiteko analogia gordetzen duela esan nahi du. Oinak gorputzarekiko bezala, ni ere orrialdearen behealdean nago. Orrialdeak, pertsonen modura, oinak ditu; kasu honetan ni, orrialdearen behealdean jartzen den oharra. Non ote dira orrialdearen eskuak, eta burua, eta gorputz-enborra? Ziurrenik ere liburu honen egileak jakinen du.

■ **Egilea**. Batzuek diote irakurlea dela garrantzitsua, baina hori ez da egia. Egileok sortzen dugu irakurlea. Horregatik esaten da egileok geure testuen neurrira egindako irakurleak ditugula. Irakurleak ez du ezer sortzen, ezta testuari ezer eranstean ere. Denaz ere bere buruari erantsiko dio zerbait irakurri duenari esker, baina ez alde-rantziz. Egileak ez du irakurleengandik zuzenean ezer jasotzen. Ni neu naizen egilea da garrantzitsua liburuetan. Egilerik gabe ez dago irakurlerik. Ez liburudendarik, ez argitaletxerik, ez liburutegirik, ez kritikaririk.

■ **Orrialdeak**. Orrialde ez direnek ez dakite nolako atsekabeak astintzen gaituen askotan, zenbait kritikaririk adierazten duenean gutariko batzuk soberan gaudela ez dakit zer liburutan. Erraza da hori esatea, frogatzea ez ordea. Zer familia ugariko gurasok jasango luke norbaitek hirugarren semea familian soberan dagoela esatea? Ostikoka hartuko luke! Arrazoiarekin gainera. Ez dezagun gure burua engainatu. Egilearentzat berak idatzitako orrialde guztiak dira beharrezkoak.

■ **Elkarrizketa surrealista**

Ikasle bakoitza zozketa bidez egokitzen zaion hitzarekin identifikatzen da. Inork ez daki zein hitz duten gainerako ikaskideek. Esku hartzeko txandak ezartzen dira. Parte hartzen duen lehenak bere bakarrizketa idatzi eta bigarrenari ematen dio, testu horren azkenengo esaldi bat edo bi agerian utziz. Ikus dezagun:

■ **Hitzaurrea**. Hori da lana eginarazi didatena. Ezin okerragorik egokitu. Kontua da oso txarra izan naizela beti inor aurkezten. Nire burua aurkezteko ere ez naiz gai! Oso zaila baita ongi egitea. Hain erraza da hanka sartzea! Eta hanka sartuz gero, gero errua zurea da. Eta bidezkoa da. Hau eta hori esaten zenuelako eta gero esandakotik

ezertxo ere ez. Oso ardura handia da. Azken finean uste dut ez genukeela egon behar ere. Nahasmena sortzeko bakarrik balio dugu.

- **Errakuntza.** Aukeran jarri didazu, esaten den moduan. Horrela da: ez guke egon behar. Baina izan bagara. Eta egia esanda, osasuntsu gabilta. Ez dago munduan gu agertzen ez garen libururik. Nahi ala ez, gizona izaki ez—perfektua denaren froga perfektua gara gu. Gizonak egindako guztiak du hozka, pitzadura edo harramazkaren bat. Inoiz ez diogu utziko izateari; hori gizakiaren perfekzio arraroari esker.
- **Marjinak.** Ez dakit zer lortu nahi duzun zure eskuhartzearekin, baina, nire kasuan, ez dakit ziur betiko izango naizen. Egunetik egunera aukera gutxiago dugu. Gero eta aire gutxiago, leku gutxiago, uzten digute. Ni, azaldu nintzen azken liburu batean, itotzeko zorian egon nintzen ezkerraldeetik; goi- eta behealdetik zer esanik ez. Nolako zalaparta! Ezinezkoa zen burua agertzea. Eta hori beharrezkoak izanda, ikusmenak hainbeste gehiegikeria eta lodikeriaren poderioz gainezka egin ez dezan. Liburuak gero eta marjina txikiagoekin egiten dituzte. Hau garaia zantzua dugu. Nik, garai honetan bizi naizenak, diozuet.
- **Tinta.** Horrela da, marjina maitea. Eta ba al dakizu benetan nork ordaintzen duen? Tintak. Inolako konturik izan gabe erabiltzen gaituzte. Bestelako kontua ziren lehen tipografoak. Orain ez. Artisaua hil da. Tintak batetik bestera minduta ibiltzen gara. Lehengo batean ikusi nuen nola haur batek orri bat, beste bat eta beste pasa ondoren, aurpegi osoa beltzez zikindu zuen. Eta ba al dakizu nori egotzi zion errua? Tintari. Guk historio horretan zerikusirik bagenu bezala!
- **Numerazioa.** Behin orrialde batean esaldi hau ikusi nuen: hitz egitearen kontrakoa ez da entzutea, itxarotea baizik. Ongi. Nire txandari itxaroten egon naiz, eta berriz egjatzatu dezaket erru hitza nire bidean agertzen dela. Zergatik? Zertarako? Ezjakintasunagatik. Izan nahi duena aukeratzeko ahalbiderik ez izateagatik mendekua hartzearren. Nork eskatu zidan niri orrialdearen hurrenkera hautsiezina izateko? Inork ez. Niri egokitu zidaten eta, hara!, orrialde-miliak korritzera. Gizona beraien barne-antolaera ahazteko asmatu gaituzte. Hain eroso da markatutako biderei jarraitzea!
- **Azala**¹⁹. Bereziki azalarena... Aitzitik... Nor ezagutzen duzu zuk, nire aurrean bat-batean gelditu eta itsasoa edota habeak urdinez margotuta dituen gela bat lehenbizikoz ikusten duenaren pare begiratzen didanik? Urte asko daramatzat lanbide honetan eta oso pertsona gutxi hartzen naute aintzakotzat. Irakurle gehienek ia ez dute begi-ninia geratzen nire aurpegian. Dena dela, aurreko lerroan zaude, eta zertarako? Anbiguetatea, neurrigabekeria, lotura eza eta kolorearen zentzugabekeriagatik lotsarazteko.

■ 18. Termino honetaz ari garela, Nabokov-ek zioen gizakien bizitza orrialde behealdeko oharren jarraipen bat dela, bukatu gabeko maisu-lan zabal eta ilun baten barruan. Hau Felix de Azuak gogorarazten digu *Lecturas compul-sivas. Una invitación* lanean (Anagrama, Bartzelona, 1998).

■ 19. Kontzeptu hauek guztiak jadanik aipaturiko Martínez de Sousaren *Diccionario de bibliografía* aurkitu daitezke.

.....

3. Liburuaren metamorfosia

Liburuaren elementu zehatz bat garena irudikatu dezagun. Hori dela eta pozik eta kontent gaude, baina bizitzan gertatu ohi den moduan, ez gaude erabat pozik. Horregatik liburuaren beste elementu bat bilakatu nahi dugu geure burua.

Bilakaera horren berri ematerakoan, adierazi-egitura bat bera erabiliko dugu, eta kome-nigarria da berau errespetatzea, zeren eta, egitura den heinean, ongi datorkigu historio eta argumentu ezberdinei buruz hitz egin eta idazterakoan.

Kontua aitortenaren abiapuntutzat eskeintzen den egitura formala ongi erabiltzea eta errespetatzea da:

“ni (bakoitza zer den adierazten da) naiz eta atsegin dut hala izatea, zeren eta (bakoitza denarekin pozik egoteko dituen arrazoiak azaltzen dira), baina ez dut atsegin (bakoitza zer den) izatea zeren eta (bakoitza denarekin ados ez egotearen arrazoiak azaltzen dira), horrenbestez, beraz, hortaz, orduan edo hala izanda, (bakoitzari izatea gustatuko litzaio-keena adierazten da) izatea gustatuko litzaidake”.

Beste ikaskide batek lekukoa jaso eta bertso berdinarekin jarraitzen du. Horrela gela-kide guztiek beren metamorfosia azaldu arte.

- 1. NI... NAIZ
- 2. HORI IZATEA ATSEGIN DUT, ZEREN ETA...
- 3. BAINA EZ DUT ATSEGIN HORI IZATEA, ZEREN ETA...
- 4. HORTAZ, ... IZATEA GUSTATUKO LITZAIDAKE

Jarduera hau modu askotan burutu daiteke. Horietako batzuk azaltzen saiatuko naiz.

Hasteko, esan dezagun “X” subjektu/objektua izaera askotakoa izan daitekeela. Joko gehien ematen digutenak ondorengo hauek dira:

- **Liburu baten elementuak**
- **Literatura idazleak (haur- edo gazte literatura, hala nahiz gero)**
- **Literatura unibertsalean agertzen diren pertsonaiak**

■ Liburu baten elementuak

Jarduera hau burutzeko ezinbesteko baldintza da liburu izeneko objektu horren osagai nagusi diren elementu ezberdin eta era guztietakoen bilduma bat egitea. Horretarako, lehen ere esan zen bezala, beharrezkoa da ikasgelako liburu-etako batzuk (edo horien ezean, liburutegikoak) eskuartean hartzea. Behaketa zuzen eta adi horren bitartez, ikasleek liburu-etan dauden elementu bistako nahiz inplizitu ahalik eta gehien lortuko dituzte. Ibilaldi horren amaieran, aurrez ikusi genuen zama kontzeptual hori, *mutatis mutandi*, izanen dugu:

“Marjina(k), numerazioa, papera, eskaintza, orrialdeak, bizkarrak, bukaera, irudiak, argitalpen urtea, lehen argitalpena, bigarren argitalpena, lerroaldiak, azal-egalak, prezioa, letra mota ezberdinak, atalak, azken hitzak, hitzaurrea, sarrera, egilearen argazkia, orrialdearen behealdeko oharra, tinta ezberdinak, hutsen zerrenda, inprimatzailea, tailer grafikoa, inprimategia, mapak, azalak, aurkibidea, copyright-a, ISBNa, sinopsia, liburudenda, orriaren goialdeko oharra, itzultzailearen oharra, bandak, ex libris, irudigilea, argitalpen herria, egilearen argazkia, barra kodea”.

Behin adierazle hauetaz jabetu eta gero, komeni da hauen adieraziekin ere gauza bera egitea. Horretarako ezinbestekoa izanen da ikasleak eskura dituen iturri ezberdinak arakatzea: hiztegiak eta entziklopediak. Informazio hau jasota, besteengana iristarazteko forma konkretu eta zehatza emateko garaia heldu da. Nola? Bi aukera daude: bana-ka edo bikoteka.

■ Banakako eredia

Ikasle bakoitzak bere hitzaldia gehiago edo gutxiago prestatu beharko du eta besteak argitu bere hitz-jarioaz. Gehiago edo gutxiago diot, zeren eta behin ikasleak antzestu nahi duen liburuaren elementua aukeratuta duelarik, nahiko denbora, denbora luzea, eman daiteke hitzaldia presta dezan. Hasten lehena **liburua** bera izanen da, eginkizun hau irakasleak egin dezake.

■ Ni **liburua** naiz. Harro nago hala izateaz. Gauza gutxi izanen dira munduan gizakien bizitzan hainbeste eragin izan dutenak. Pertsona askorentzat garrantzitsua, beharrezkoa eta ezinbestekoa naiz. Baina hainbesteko garrantziak burua galduarazten dit, hainbeste, non batzuetan itsutzen nauen, nor naizen ere ez jakiteraino. Horregatik marjina soil bat bilakatu nahi nuke.

■ Ederki. Ni, lagun maiteok, liburuaren **marjina** naiz. Ez dakizue zein zoriotsu sentitzen naizen liburu guztien letra eta lerroaldiek kokatu behar duten eremua markatuz, nahasten den jende asko baitago, eta ordena, inposatua bada ere, ongi dator-kio. Botere-sentsazio oso atsegingarria da. Aitzitik, zenbait egun eta unetan, ez dut gustoko marjina izatea. Beti gauza bera izatea gogaikarria da. Gainera, zati batzuek oso modu txarrean begiratzen didatela atzeman dut. Horrenbestez, **bigarren argitalpena** izatea gustatuko litzaidake.

.....

- Hain zuzen ere. Ongi begira iezadazue: **bigarren argitalpena** naiz. Asko kosta zitzaidan bizitza honetan presentzia izatea, zazpi urte zehazki, baina hemen nago. Ez dakit zer sentitu zuen nire ahizpa bikiak mundura lehenbizikoz etortzean, baina ni txundituta nago. Mundu guztiak ezagutzen nau, nire berri du eta poztan da ni berriro ikusteaz. Eta xehetasun horri errezelo pixka bat hartu diot. Nor maite dute, ni ala nire ahizpa bikia? Ez dakit, baina badaezpada burujabeago izan nahiko nuke. Tintaren ohantze den **papera** nahi nuke bilakatu.
- **Papera** naiz, eta zuek ez duzue ziurrenik ere jakinen, baina bi mila urte baino gehiagoko historia dut nire gain. Txinatarrek asmatu ninduten Kristo aurreko 105. urtean. Hortaz, artisten letra eta marrazkiak itsasten diren feldro poroduna izateaz ondo kontent eta harro egotekoa da. Papera izatea gozamina da, baina oso gogorra ere bada. Den dena jasan behar dut. Hortara, beste zerbait izateko aukera dudanez, **lege-gordailua** izan nahi dut.

Horrela jarraituko genuke, ikasle guztiak beren banakako mintzaldia eskaintzen bukatu arte.

■ **Bikotekako eredia**

Orain hitzaldiak binaka izanen dira. Eta, noski, elkarrizketa modua hartuko dute. Mintzaldia arretaz prestatzea eskatzen du, aurreko kasuan bezala. Elkarrizketa xehetasunez lantzea eskatzen du, hitzaldia bien arteko eztabaida izanen da eta.

Bikote bakoitzak direnaren alderdi positibo nahiz negatiboak antzestu beharko dituzte, eta ondoren zer izan nahi luketen adierazi beharko dute.

Aurreko kasuan bezala, liburuaren elementuekiko bilatu eta aurkitutako informazio guztia birlanduko da, elkarrizketa formatuan eskeintzeko.

Zenbait adibide:

■ *Liburuk ilustratzaile izan nahi du*

- Liburu izate hau zoragarria da, adiskide.
- Bai, baina ez zaitetz hainbeste berotu.
- Zer esan nahi duzu?
- Liburua izango garela, baina egia esan ez dakigu zein liburu garen. Testuliburu, informatika-liburua, poesia-liburua, matematika-liburua?
- Liburua gara eta horrekin nahikoa da. Gizateriaren altxorra gara.
- Ni itsulapiko txiki bat izatearekin konformatzen naiz. Gogora ezazu munduko ezbehar eta ankerkeria anitz leporatzen dizkigutela.
- Hori gu ongi irakurtzen ez dakitelako da.
- Zu beti hain baikor.
- Eta nola nabari den zu eszeptiko hutsa zarela!

- Aizu, eta nahiez ari garela, ez litzaizuke gustatuko zerbait ezberdina bilakatzea, bizitzan zehar hainbeste jenderi atentzioa eman gabe, pertsona sentiberei izan ezik, igeroko litzakeena?
- Ba bai. Eta konkretuki norbaitengan pentsatu al duzu?
- Bai, noski.
- Norengan?
- Ez al litzaizuke gustatuko haurrentzako liburuen ilustratzaile bilakatzea?
- Zoragarria! Hori izan da beti nire ezkutuko desioa!

■ *Ilustratzaile ilustrazio bilakatzen da*

- Hau beste gauza bat da, e, adiskide?
- Bai horixe. Ikusi al duzu gure marrazkiak ikusi zituen azkenengo haurraren begirada?
- Zoriontasun perfektua zen.
- Eta ikusi al zenuen bere amak nola begiratzen zuen haurraren aurpegia?
- Eta hori dena guri esker.
- Guri esker?
- Noski.
- Nik ez dut ba hain garbi ikusten. Haurrak ez gintuen gu ikusten; gure ilustrazioak ikusten zituen soilik, baina ez dut uste zugaran edo nigan pentsatzen zuenik.
- Zein bihurria zaren!
- Pentsa ezazu, liburuez ari direnean, ia inor ez dela gutaz gogoratzen. Ilustrazioak oso politak eta beraiei buruz esan ohi diren itxurakeria guztiak izanen dira, baina gutaz, zer esaten dute? Ezertxo ere ez.
- Zer proposatzen duzu?
- Ez dakit, baina marrazten dugun hura bilaka gintezen atsegingo nuke.
- Ilustrazioak? Ez al da arriskutsua izanen?
- Beti izanen dugu ginenera itzultzeko aukera.

■ *Ilustrazio puntu eta bereiz bilakatzen da*

- Ez nuen batere espero liburu bateko ilustrazio izatea hain zoragarria zenik. Irakurketaren geltoki eta ostatua gara. Guregan geratzen ez den haurrik ez dago. Liburuen saltsa gara, gozagarria eta esentzia ematen diena. Gu gabe, haur askok ez lukete jakinen zer ari diren irakurtzen, ezetz?
- Ez, baina ez zaitetz hain harro jarri. Zeren eta batzuetan, azaldu ginen azkeneko liburuaren hogeita zortzigarren orrialdeko ilustrazioan gertatzen den modura, irakurleari argibideak eman ordez nahastu egiten dugu. Orrialde horretatik pasa zen azkeneko haurrak bekokia zimurtu besterik ez zuen egiten.
- Errua ez da gurea, ilustratzailearena baizik.
- Beti errua besteei botatzen diezu. Errua zurea izan zen, zeren eta, marrazten zintuzten bitartean, ez zinen geldirik egon eta horrela irakurleak ez daki oso ongi irrifarrez edo amorrubizian zauden.
- Ongi da. Amaitu dezagun elkarrizketa.
- Egin duzuna ideia bat ematea izan da.

.....

- Beldurra ematen didazu.
 - Ez al litzaizuke gustatuko puntu eta bereiz bilakatzea?
 - Eta horrek ez al du betiko heriotzaren zantzua?
 - Ez, gogora ezazu, aldatzeko nahia bizirik den bitartean, gu ere bizirik izanen garena.
 - Aurrera, bada.
- *Puntu eta bereiz zati bihurtzen da*
- Eta zu zer zara, puntu ala bereiz?
 - Biak batera.
 - Posible al da hori?
 - Nahi izatearekin aski da.
 - Eta benetan zer gara bada?
 - Lanaren gailurra. Norbaitek atsedean hartu dezakeen unea.
 - Eta hori ona ala txarra da?
 - Zergatik begiratu behar duzu ikuspuntu horretatik?
 - “Ikuspuntu” esan al duzu? Puntu hori puntu eta bereizen senide al da?
 - Ez dakit. Baina egiaztatzen ari naiz ez dizula onik egiten puntu izateak, eta are gutxiago puntu eta bereiz.
 - Tira, gutxienez horretaz hitz egiten ahalko dut, denbora batez izan bainintzen. Baina arrazoi duzu, adiskide. Azkena iristen ez den bitartean dena da zoragarria, bizia, mugimendua, asaldura izaten dira, baina puntu eta bereiz jartzen den unean, plast!, izateari uzten diogu. Eta beste gauza bat, inork ikusten al du zerbait puntu eta bereizengan? Ikusten al du puntu eta bereizetik haratago?
 - Utz ezazu, adiskide, baina agian arrazoi duzu: irakurleek ez dute gugan arreta handiegirik jartzen. Gustatuko al litzaizuke zati bat izatea?
 - Zer motatakoa? Poesia, elaberria, argudiozkoa?
 - Zati, besterik gabe.
 - Hala bedi.

Jarduera hau antzezen dramatiko baten bidez burutu daiteke. “Liburuaren hogeitxuraldaketak” izenburua izan lezake.

Bikote bakoitzak bere izaerari egokitutako mozorro bat egin beharko luke. Eta hori diziplinarteko lan bat izanen litzateke, non plastikak, preteknologiak, musikak, eta noski, psikomotrizitateak zerikusi handia izanen luketen.

■ Liburuen egileak hitz egiten

Aurreko jardueretan genuen asmo berarekin, egilearen irudia hartuko dugu hauen ait-zakitzat. Badakigu horien ezean idazlana, liburua, hutsaren hurrengoa izanen zela. Baina ez dugu idolatria edo gurtza erraz eta otzanean erori nahi, ez baitakigu zenbateraino diren idazleak beharrezkoak gizartearentzat. R. Musilek galdera hori egiten zion bere buruari mende hasieran, eta ez zuen erantzun egokirik aurkitu. Eta arrazoi honengatik, batik bat: miresmen egoera ahulezi mental egoera bat al da?²⁰ Izan liteke.

Eta zein egiletaz hitz egin behar dugu? Mota guztietako idazleak, denbora eta leku guztietakoak, onak eta txarrak, ankerrak eta errukiorrak, hiltzaileak eta sainduak, zailak eta errazak, argiak eta baldarrak, azalekoak eta sakonak, politak eta itsusiak, gizonak eta andreak.

Hain zerrenda tolerantea eta mestizoa lantzeko, sistema hoberena honako hau da, ikasleei beraien bizitzan zehar gogoan hartu dituzten idazleen izenak eskatzea. Berdin dio haien libururen bat ez badute irakurri. Garrantzitsuena, orain, izenak dira. Zenbat eta gehiago, hobe. Hortaz, has gaitezen:

“Cervantes, Shakespeare, Perrault, Carrol, Swift, Homero, cela, Defoe, Andersen, Lovecraft, Chaucer, Lucanor, Rodari, Madame d’ Aulnoy, Le Prince de Beaumont, Borges, Boccaccio, Valera, Mark Twain, Cernuda, Unamuno, Baroja, Gabriela Mistral, Fernán Caballero, Galdós, Gisbert, Pilar Mateos, Jesús Ferrero, Verne, Conrad, Stevenson, Salgari, Dumas, London, Poe, Wells, Scott, Fenimore Cooper, Atxaga, Bierce, Quiroga, Grimm, Collodi, Machado, Neruda, Sierra i Fabra, Seve calleja, Gripe, Agustín Fernández Paz, Consuelo Armijo, Nöstlinger...”

Hurrengo urratsa zera izanen da, ikasle bakoitzak dena delako arrazoiengatik adime-nean eta bihotzean interes handiena pizten dion idazlea aukeratuko du. Nahiz eta hobe izan pertsona bakoitzak idazle batengan jartzea bere arreta osoa, ez da ezer gertatzen bi ikasle idazle bera aukeratzen badute. Prozesua arduratuko da bakoitzaren mugak argitzeaz. Dena dela, hobe ikasle eta idazlearen arteko harremana bakarra eta ezberdina bada. Horrela, klaseak idazle gehiagoren xehetasunak ezagutzeko aukera izanen du.

Lehen ere esan dudanez, kontua ez da idazle hauek gurtzaren aldareetara igotzea, beraien lanak irakurtzearen kaltetan. Egia esan, hemen proposatzen dena zera da: irakurketaren bitartez idazle hauei buruzko informazio askotarikoa eta egiaztatua bilatzea, hauen bizitza, eguneroko eginbeharrak, idazle bezala egindako ibilbidea, porrotak, arrakastak eta bizimoduari buruzkoa, ondoren beraien liburuetara joateko. Eta noski, helburua ez da entziklopedia eta literaturaren historietatik informazio hori buru-bela-rri kopiatzea, besterik gabe. Kontu honek buru-lan handiagoa eskatzen du.

■20. T. Bernhard, *Maestros Antiguos*, Alianza Tres, Madril 1990.

.....

- Lehenik eta behin, informazio hori jaso egiten da. Ondoren, irakasleen laguntza ordainezinarekin, datu horien garbiketa egiten da, ezustearen irizpidea jarraituz. Hau da, idazle horiei buruz ditugun datu guztietatik, nolabaiteko harridura sortu zigutenekin geratuko gara. Gero denek, bereziki informazioa birlandu behar duenak, ulertzen ahalko duten lengoaiaz idatziko ditugu. Jakina baita ikasleek kopiatzen dituzten informazioetatik asko ez dituztela ulertzen. Ez da beharrezkoa ere ikasleek beraien ikaskideak aspertzera, dagokion autoreak idatzitako liburu guztien izenen zerrenda litania baten modura errezitatuz.
- Bigarrena. Informazio hori landu behar da ikaskideei aurkezteko. Kasu horretan, berau aurkezteko bide estilistikoa bakarrizketa ezgarbi eta leuna izanen da. Idazlea lehenengo pertsona erabiliz mintzatuko da, eta bere bizitzaren biografia xume bat garatzen saiatuko da, hiztegi, aldizkari, entziklopedia, testuliburu, eta hala behar izanez gero, internet-en, aurkitutako datuetan oinarrituz.
- Hirugarrena. Aipatutako informazioa ikaskideen aurrean aurkezteko garaia da. Aurreko ariketan bezala, gutxi-asko adostu eta landutako antzezpen dramatikoak egin daiteke. Horretarako, ikasleek mozorro egokiak jantziko dituzte. Hortaz, zenbait garaitako jazkera ikertzea beharrezkoa izanen da, baina ez gehiegi.

Adibideak.

Charles Perrault. Ziurrenez nire izenak ez dizue ezer esanen, eta batek baino gehiagok kale-txakur batekin nahasiko nau. Frantsesa naiz. Eta ez badakizue ere, Txanagorritxoren aita naiz, nire izenari itzal egin arterainoko ospea hartu zuen neskatila hura. Baina horrek ez du axola. Ni Parisen jaio nintzen 1628an. Zazpi anai-arreba ginen, horietako bi oso gazte hil baziren ere. Nire aita abokatu zen parlamentuan. Horrekin nire familiaren egoera ekonomiko eta soziala ona zela esan nahi dut. Baina, agian, jakitea gehien komeni zaizuena zera da, hamar urte ongi beteak izan arte ez nuela irakurtzen ikasi, baina behin ikasi eta gero, bizitza osoan irakurri nuen. 1651ean bukatu nituen abokatu ikasketak, eta ia bizitza osoa Colbert ministroarentzat lanean pasa nuen, Erregearen Herri-lan ikuskatzaile modura. Berrogeita lau urte nituela hemeretzi urteko Marie Guichonekin ezkondu nintzen. Hiru seme-alaba izan genituen. Esan beharra daukat *Antzinako Kontuak* idatzi izan ez banu, orain inor ez litzakeela nitaz gogoratuko. Bertsoak egiten ere bazekien gortesau iaio baten moduan izango nintzen orduan gogoangarri, besterik ez. Ipuinei dagokienez, nire seme Pierrek bildu eta idatzi zituela esan zuen norbaitek. Zer esan? Ezer ere ez, dagoeneko nik parterik hartuko ez dudan eztabaida dela hori. Egia esan, idatzi nituen ipuin guztiak jada kontatutakoak ziren, Txanagorritxo izan ezik. Hau, bitxikeri modura, gaizki amaitzen den ipuin bat da. Zergatik? Gaiztakeriak zigorra merezi duelako eta bertuteak saria, ez al duzue uste?

Jonathan Swift. Nire izena Jonathan Swift da. Liburu asko idatzi nituen, baina *Gulliverren bidaiak* bezain ospetsurik ez. Irakurri al duzue? Ezetz susmatzen dut. Ez dizuet esanen sentitzen dudala, ezen gaur egungo gustuen arabera, ez dakit gustatuko

zaizuen. Baina ona litzateke saiatzea. Zuen irakasleari ere eskatu nahi diot nire bi liburu-
ruei buruz hitz egin diezazuen: *Liburuen bataila* eta *Proposamen apal bat*. Bi liburu ezber-
din dira, baina lehenengoaren orrialde batzuek liburuen munduan komeni den bezala,
ate nagusitik, sartzen lagunduko dizuete; bigarrenari dagokionez, nire garaian zorotzat
hartu ninduten hura idazteagatik. Zoroetxe batean sartu ninduten azkenean. Ederra lit-
zateke zuen irakasleak zuei irakurtzea eta inoiz idatzi ez zen bezalako haurtzaroaren
defentsa dela ikustaraztea.

A. Fernández Paz. Galizian jaio eta hazitako idazlea nauzue. Zuen adineko gazteent-
zat liburuak idazten ditut, baina ez dut batere argi nire liburuak zuentzat bakarrik ote
diren. Kontua da ez dudala uste literaturak alde aurretik zehaztutako mugak dituenik,
ezta liburuak adinaren edo zailtasun mailen arabera sailkatu behar direnik. Nire liburu-
en artetik, *Hitez-hitezko ipuinak* gomendatzen dizuet. Berau irakurtzen gozatuko duzue-
naren uste osoa dut, eta hortaz gainera, hobeto idazten eta egunkarietako iragarkiak
zuen ipuinetarako argumentu bezala erabiltzen jakiten erakutsiko dizue.

Bernardo Atxaga. Beherbada ez dakizue nire benetako izena Joseba Irazu dela eta
Bernardo Atxaga nire goitizena dela. Azkenaldian idazten ditudan liburuak berriro nire
benetako izenaz zintzeko tentazioa izan dut, baina atzera egin dut. Zergatik? Ez da
komeni ongi egina aldatzea. Euskara eta ahozko tradizioa biziki maite ditut. Nire liburu-
ak euskaraz idazten ditut lehenbizi, eta gero gaztelerara itzultzen ditut. Xume idaz-
tea atsegin dut, baina hori ez da sinplekeriarekin nahasi behar. Lehen esan dizuet ahozko
tradizioa izugarri gustatzen zaidala. Horrela da. Hainbeste atsegin dut, ezen nire uste
sendoenetakoa den, idazle modernoak aintzinako idazleek jada idatzi eta kontatu zute-
na modu ezberdinean -eta batzuetan okerrago- kontatzea besterik ez duela egiten.
Horregatik esan ohi dut literatura aintzinakoen eta modernoek elkartrukaketa dela, eta
ez dela harrotu behar idazle famatua izateagatik.

Hans Christian Andersen. 1805ean jaio nintzen Odensen, Fyn ugarteko hiribu-
ruan, Danimarkan. Nire aita, zapatagina izateaz gain, irakurle sutsua ere bazen. Berari
esker jabetu nintzen nire irakurtzeko zaletasunaz. nire ama pertsona ezikasiaz zen,
baina oso bihotz onekoa. Lehenengo ipuin eta sineskeriak nire amona eta herriko
beste amonengandik jaso nituen. Ziur hau ez dakizuela, baina nik ez nuen idazle, eta
are gutxiago ipuigilea izan nahi. Nik nahi nuena abeslari eta aktore izatea zen, baina
nerabetsa helduan nire ahotsa aldatu egin zen eta akabo nire ametsak. Onartzen dut
gogaitzen nauela jendeak ipuigile bezala bakarrik ezagutzeak, antzerkia, elaberria,
poesia eta bidai-liburuak idatzi nituela ahazten duelarik. Alianza argitaletxean aurkitu
daiteke nire *Bidaia Espainiatik barrena*. Nire lehen ipuin bildumatxoa 1835ean argita-
ratu zen. Orduan hogeita hamar urte nituen, Dickensen lagun egin nintzen eta ospea
irabazi nuen nire ipuinak ahots garaian irakurtzeko nuen abileziagatik. 1866an,
Erregearen Estatu Kontseilariaren ohorezko titulua jaso nuen eta herriko seme
kuttun izendatu ninduten. Ohore bat zen, baina ni ez nengoen erabat zoriontsu. Inoiz
ez nintzen zoriontsu izan. Jendeak gizon atsegin eta adeitsutzat hartzen nau, baina
onartzen dut inoiz ez nintzela hala izan. Zergatik? Beti izan nahi izan nuen hartan ez
nuelako arrakastarik lortu, eta bai ordea kasualitatez lantzen hasi nintzen genero

.....

batean. Ezkondu ere ez nintzen egin, nahiz eta Jenny Lind izeneko abeslari batekin zeharo maitemundurik egon. Azken finean, inoiz ez nuen lortu nahi izan nuen hura. Bukatu aurretik, nire ipuin ospetsuenak gogoraziko dizkizuet, “Berunezko soldadu ausarta”, “Poxpologile txikia” eta “Enperadorearen janzki berria”, zeinen iturria ipuin espainiar bat den. Gibelego minbizi batengatik hil nintzen 1875ean. Nire hilobian hau idatzi izana gustatuko litzaidake: “Bitarteko guztiak onak dira, helburu onak erdiesteko badira”.

Eta horrela, aukeratutako autore guztiekin amaitu arte.

■ Literatura unibertsaleko pertsonaiak

Lehenengoz, komeni da ikasleek edozein arrazoi edo sentimendugatik gogoan dituzten pertsonaien bilduma egitea. Haien jatorri literarioa gutxienezkoa da. Denek balio dute. Salbuespenik gabe. Haur eta gazteentzako deituriko literaturakoak, folklore ipuineta-koak eta tradiziozko eta gaur-gaurko elaberrikoak. Berreskuratze honen bitartez, libu-ruetikiko joera positiboan gehiago sakonduko dugu, posible bada.

Txanogorritxo, Erpurutxo, Hansel eta Gretel, Ahatetxo Itsusia, Kixote Mantxakoa, Santxo Pantza, Errauskine, Otxoa, Bizarruridin, Pinotxo, Lamiatxoa, Simbad marinela, Edurnezuri, Ogro, Perez saga, Robinson, Gulliver, Katu Botaduna, Peter Pan, Aladino, Hiru Txerriak, Itsumutila, Sandokan, Pocahontas, Sissi, Ali Baba, Romeo eta Julieta, Fortunata eta Jazinta, D’Artagnan, Phileas Fogg.

Ziurrenik ere, hauetako izen asko gure oroimenean bueltaka dabilta, haurtzaroa- ren lehen arrastoa gordez. Baina, agian, gehiago gogoratuko gara gu izan ginen har- taz eta bere bizi-baldintzez, pertsonaien gora-behera, pasadizo eta ezaugarri fisiko eta psikologikoez baino. Hori dela eta, jarduera hau burutzeko, arrazoi ezberdinen- gatik adimen emozionalaren muina ukitu ziguten testua horiek berrirakurtzea beharrezkoa da.

Lehenengo eta behin bakarriketa gutxi-asko laburra baina sakon baten bitartez bizia eman nahi diogun pertsonaia aukeratuko dugu.

Bigarren lana, guk aukeratutako pertsonaia istorioaren protagonista deneko ipuin edo testua irakurtzea izanen da.

Behin irakurketa horretan sarturik, guztiz beharrezkoa da haien ezaugarrietako batzuk berreskuratzea. Nolakoak dira? Zer dute? Zer egiten dute?

Hauetako ezaugarri asko testuan zuzenki azaltzen dira; beste batzuk berriz, ez, eta hauek kasuan kasuko pertsonaiaren jokaeratik ondorioztatu beharko dira. Litekeena da autoreak pertsonaiek zer egiten duten esatea, baina ez psikologikoki edo etikoki nola-koak diren. Irakurleak hori ondorioztatu egin beharko du.

Irakurketa hau amaitzean, ikasleek beraien pertsonaiaren izaerari buruzko laburpen hertsia bat izanen dute. Honen argibideei jarraituz, alegiazko bizia emango diote ondoren. Ikasleetako batzuek ez badute literatur iturrietara itzultzeko beharrik, hala bedi. Horrela beraien lana gainerako ikasleekin alderatzeko aukera izanen dugu. Ez akatsak atzemateko, denetik izanen baita, baizik eta burutsuagoa den zerbait agerian jartzeko: zein bitxia den gaur arte entzutez soilik ailegatu zaizkigun zenbait ipuinen testuak irakurtzea. Adibidez, Perraulten Txanogorritxoren jatorrizko bertzioak ikasle bat baino gehiago hunkiturik uzten du, zeharo harriturik Perraulten ipuina “horrela ez dela” edo “egiazkoa ez dela” esateraino.

Ikasleek beren hitzaldiak idatz ditzatela aholkatzen da, eta laburrak izanez gero, buruz ikas ditzatela. Azken finean, bakoitzak ekoiztutako testua da. Horrela, neuronak pixka bat koipeztatzeaz gain, beraien testugintza hobeto menperatuko dute.

Ikus ditzagun zenbait adibide.

Otso ankerra. Monsieur Perraultek sortu ninduenetik, nire ospe txarra izugarri handitu zen. Nirea eta nire espeziekideena. Krudel, zuhur eta gaitzotzat aurkezten gaituzte. Baina, hala al gara? Egia esan, zer egiten dugu? Beste edozein piztia bezala, gero eta aukera gutxiago ematen dizkigun mundu batean bizirik irautera mugatu. Nahiago nuke nik barazkijalea izan, baina zer eginen diogu!, geneetan daramat joera haragizalea. Eta ezinen didazue ukatu pubertaroan sartu berri den neskatila bat oso-oso samurra denik. Eta are gehiago. Neskatila haren txanoa, nire galbidea izan zena, nire otsokumeetako baten larruaz egina zen. Kontuak diren moduan. Egia da Perrault oso ongi portatu zela nirekin, baina ez zuen den-dena kontatu.

Robinson Crusoe. Ez dakit nik nire historioak, zeina nire aita literarioa zen Daniel Dafoek benetan gertatutako kasu batetik hartu zuen, zerbaitetarako balioko dizuen. Hasteko, ez dakit itsasoaren eta abentura eta negozioen bilatze setatiaren zale amorratuak zireten. Horrela ez bada, ez dut uste bere bizitzaren zati bat uharte batean bakarti baino bakartiago pasatzen duen tipo baten istorioak liluratuko zaituztenik. Egia esan, aspergarria baina aspergarriagoa da. Ez diot inori gomendatzen. Kartarik ere ez nuen izan bakar-jokoan aritzeko. Biblia bat eta nindoan itsasontzia hondoratu zenean salbatu nituen lau huskeria besterik ez nuen. Egia esan, zortea izan nuen. Eta natura izan zen sendo egin ninduen. Besterik ez. Eta nire istorioak duen onena zera da, berari esker, mota guztietako robinsonen istorioak idatzi zirela. Baina ez kasurik egin. Benetakoa nirea da: ikusirik zegoen biziraupen baten istorioa.

Kixote. Ni naiz, ziurrenik ere, gehien aipatzen duten eta gutxien irakurtzen duten literatur pertsonaia. Niri buruz esaten dituztenak entzuten ditudan bakoitzean ornoek krask egiten didate. Ni ez nintzen erotu zaldun-liburuak irakurtzeagatik. Ez egin kasurik horrelako saldukeriari. Cervantesek esan zidan behin baino gehiagotan zentzudunak beraiek zirela, baina, haien zentzuduntasuna eta nire erotasunaren artean, ni nahiago ninduela. Ea nire erotasuna zein zen? Gizarteak inoiz jasan ez duena: burujabea izatea

.....

eta batek nahi duena egitea, besteengandik bereizi, ez besteen kontra. Nire bizitza herri hartan aspergarri hutsa zen. Nire kasua zera da, egia esan, bizimodu aspergarri, berri-jario eta beti berdinaren aurkako matxinada. Zaldun-liburuena aitzaki soila izan zen, azkenerako denek sinetsi zutena, baina nola irakurriko nituen nik liburu haiek denak, lehenengo lerroa irakurtzearekin nahikoa zen aspergarri hutsak zirela jakiteko eta? Eroa agian bai, baina tontoa ez!

Ahatetxo Itsusia. Aitortuko al dizuet sekretu bat? Neure burua ez dut batere gustuko, ez ahate, ez zisne moduan. Oso tipo arraro eta ezatsegina zen Andersenek itxurek iruzur egiten digutela ikustarazi nahi zizuen, baina hori ez da egia. Ongi begiratzuz gero, kontuak oso argi ikusiko dituzue. Nork nahastu ditzake ahate bat eta zisne bat? Nik ez dut ezagutu nahasten dituenik. Ezta egun bakar batzuk dituztenean ere. Hori itsu batek edo iruzurgile batek bakarrik egingen luke. Itsuarena normala da, baina ez iruzurgilearena. Iruzurgileak besteei ez dena ikustarazi nahi die, horrengatik ezkutatu edo itxurakeriatan ibiltzen da. Eta, zentzu honetan denok gara pitin bat iruzurgile. Uste izaten dugu gure barnean besteek ikusten ez dituzten ezaugarri zoragarriak ditugula, baina, benetan al ditugu? Andersen berriro irakurtzen baduzue, pentsa ezazue berriro horretan. Zisne bilakatu nintzenez, ahatetxo itsusia nintzenez baino askoz hobeto ez zitzaidalako joan diot hori.

Errauskine. Zein erraz konpontzen dituzten gauzak ipuinek! Zein erraz bilakatzen dituzten zoru garbitzaileak printzesa, arropa-garbitzaileak erregin eta sutondo-garbitzaileak enperatriz! Seguraski zuetako inork ez du sinetsiko horrelakorik gerta daitekeenik ere. Are gutxiago bizi zaretan munduan. Baina oker zaudete horretan jarraituz gero. Egia zera delako, antzeko itxuraldaketak minutuero gertatzen direla mundu honetan. Nola? Gertatu daitekeen modu bakarrean: pertsona zintzoak izanez. Zenbait zini-kok zintzotasuna tontoa izatearekin nahasten du, baina, mundu honetan gaiztoek soilik izaten dutela arrakasta esaten badizute ere, ez sinetsi. Zintzotasuna bakarrik da azkarr. Errauskinek esana.

4. Askotariko testuak ekoiztea

Badago beste aukerarik ere. Izaera askotariko aukerak. Jonathan Swiftek *Liburuen bataila* idatzi zuen moduan, baldintza berdinetan proposatu liteke, guda bat ez bada ere, istorio bat, edozein liburuk dituen eta jada aipatu ditugun osagarriekin. Prozesua horrela litzateke: horietako hitz batzuk hartu eta elkarren artean nahastu, harreman horretatik narrazio-hastapen xume bat atera nahian. Narratiboa nahiz edozein beste testu-mota: azalpenezkoa, deskribatzailea, argudiozkoak, poetikoa. Bakoitzak nahi duena. Hona proposamen batzuk:

- **Azalpenezkoa:** Marjinen historia liburuetan. Tipografiaren jatorria, garapena eta bilakaera. Liburu-azalen katalogo eta aldaerak. Orrialdearen behealdeko oharrei buruzko ikasgaia. Paseoa liburuen akatsetan barrena. Eskaintzaren artea.

- **Argudiozkoak:** Zergatik orrialdeen behealdeko oharrak irakurlearentzat irain bat dira -edo iraintzat hartu daitezke?- Hitzaurreen baliogabezia. Zinatu behar al dituzte idazleek beren liburuak? Irakurri behar al dira nahitaezko liburuak? Liburuek usain ona izatearen garrantzia. Zergatik, batzuetan, orrialdearen behealdeko oharrak narrazioaren gorputza baino interesgarriagoak dira?
- **Deskribatzaileak:** Atzo irakurri nuen liburuaren lehenengo orrialdearen deskribapena. Nire matematika liburuaren letrari buruzko laburpen deskriptiboa. Edozein libururen kanpoko itxura deskriba ezazu. Zure liburu gogokoaren azalaren ikuste-deskribapena (usaintze-, ukitze-deskribapenak).
- **Azalpenezkoak:** Idazle hantuste eta itzultzaile ezjakin baten arteko boxeo—borrokaldea. Argitaratze urteak liburu baten orrialdeetan barrena egindako bidaia. Akats baten abentura eta zorigaitzak.
- **Hezigarriak:** Akatsak dituen liburu bat irakurtzeko argibideak. Lerro artean irakurtzea aholku praktikoak. Orriak pasatzerakoan hatzak ez zikintzeko argibideak ematen dituen gidaliburu laburra. Liburuak ergel konplexua ez sortzeko argibideak.
- **Poetikoak:** Azalari oda. ISBNri sonetoa. Lege-gordailuari akrostikoa. Marjinei alleluia. Tailer grafikoei limerick-ak. Argitaletxeari bertso askeak. Liburu baten zenbakitze poetikoa. Hitz-atze berotu baten galdera eta erantzunak. liburu baten izenburuari epigramak. Liburuaren egileari biko errimatu solte eta lotsagabeak. Argitaratzaileari bertso askeak.

5. Sailkatu eta jokatu

Gizakiak gauzak sailkatzeko duen aspaldiko joera buruko gaixotasunen baten sintomatizat hartu ohi da. Batzuentzat hori ez egitea iparra galtzea da. Eta, Montaignek aholkatu zuen modura, zalantza burukoaren gainean lo egitearen alde daudenen artean ez bagaude, ohikoena garuna aurreiritziz bete izatea da. Horien bitartez, inguratzen gaituen errealitatea, eta bereziki asaldatzen gaituena, uxatzen dugu. Haurrek ez dakite klasifikatzen, baina bai jendea sailkatzen. Lehena prozesu mentala den bitartean, bigarrena gizartearen aje nagia da.

Klasifikatzeak irizpideak izatea eta erabiltzen jakitea da, behatzea eta bazterketa egitea. Klasifikatzea gauzen arteko parekotasunak eta aldeak zehaztea da. Klasifikatzea errealitatearen nahasmenean balioak sartzea da. Klasifikatzea datuen ohian nahasian orientatzen jakitea da. Klasifikatzea jakitea da. Eta gustatuko litzaiguke jakite honek, zeina *sapere*, gustatu, hitzetik datorren, gizakia gehiago izatera eramango balu.

Hortaz, klasifika dezagun. Liburuaren munduko kontzeptu multzo bat dugu. Osa ditza-gun taldeak batzen dituen antzekotasunik duten hitzekin.

.....

- *Lehen multzoa*: Hitzaurre, hitz-atze, aurkibide, atal, laburpen.
- *Bigarren multzoa*: Egile, izenburu, bilduma, prezio, argitaletxe.
- *Hirugarren multzoa*: Akats, orrialdearen behealdeko oharra, zenbakiak, tinta, letren mota, lerroak.
- *Laugarren multzoa*: ISBN, lege-gordailua, argitaratze data, lehenengo argitalpena, copyright-a.
- *Bosgarren multzoa*: Itzultzaile, ilustratzaile, marrazkilari, argazkilari, inprimatzaile, enkoadernatzaile.
- *Seigarren multzoa*: Azala, azal-hegalak, bizkarra, goardak, marjina.

Ez daude ikasleek lehenengo ekitaldi batean esandako hitz guztiak. Baina nahikoak dira koadro honek eskaintzen dituen joko-aukerak adierazteko.

Karta-sorta bat egin dezakegu. Guztira, hogeita hamar karta. Multzoko bost. Karta bakoitza hitz batez eta kontzeptu hori argitzen duen marrazki batez osatua egonen da. Multzo bakoitzak izen zehatz bat izanen duen familia bat osatuko du.

Ondoren, jolastea besterik ez da. Preteknologian duten materialez egindako kartak nahasi behar dira. Eta zozketa bidez egokitu zaionak jokua hasiko du. Jokua honetan datza: zenbat eta karta familia gehiago osatu, hobe.

Familien izenek, ahal dela, hitzek adierazten dutenarekin zerikusia izanen dute.

Hona hemen aukera bat:

- | | |
|--|--|
| ■ <i>Lehenengo multzoa</i> : Orientazio familia. | ■ <i>Laugarren multzoa</i> : Legezko familia. |
| ■ <i>Bigerren multzoa</i> : Garrantzia andrea familia. | ■ <i>Bosgarren multzoa</i> : Arraro familia. |
| ■ <i>Hirugarren multzoa</i> : Dotore familia. | ■ <i>Seigarren multzoa</i> : Nabardurak familia. |

Karten edukia idazleen eta pertsonaien izenekin eta liburuen izenburuekin osatu daiteke.

6. Hitz batean zehaztu eta laburbildu

Kasu honetan ikasleari zera eskatzen zaio. liburuekin nolabaiteko harremana duen egintza bat zehazteko hitz egokia aurki dezan. Normalean hitz hori beraiek asmatutakoa izanen da. Esaldi hauek bi eratara osatu daitezke:

- **a.** Irakasleak lantzen ditu, bere irudimen-irizpide bateratzaileen arabera.
- **b.** Ikasleek, behin esaldi hauek osatzeko sistema erraza ezagutu eta gero, burutuko dituzte.

Honako hauek ikasgela batean sartu-ateran ibili ziren sintagmetako batzuk dira: Nola deskribatu hitz bakar batez, hau benetakoa edo asmatua dela ere, liburuetikiko guregan edo besteengan atzeman dugun edozein egintza?

- 1. Liburuaren azal-hegalak bakarrik irakurtzea.
- 2. Liburu bat irakurri eta bertan esaten den ezer ez ulertzea.
- 3. Liburu bat irakurtzen hastea eta lehenengo orrialdean uztea.
- 4. Liburu bat irakurtzen hastea eta bukatzea.
- 5. Liburu bat eserialdi batean irakurtzea.
- 6. Liburu bat hartu eta marrazkiak bakarrik begiratzea.
- 7. Liburuaren edukia azaleko ilustrazioarengatik ondorioztatzea.
- 8. Liburu bat duen letra motarengatik arbuatzea.
- 9. Letra gutxi eta larriak dituzten liburuak bakarrik irakurtzea.
- 10. Liburutegian (liburudendan) sartu eta, satu bezala irtetea.
- 11. Esaldi interesgarri bat irakurtzen denean, gelditu eta berari buruz pentsatu.
- 12. Liburu bat irakurtzen hasi eta ikasgelan ez dagoen norbaitetaz pentsatzea.
- 13. Zer esan nahi duten ez dakigun hitzak hiztegia ez bilatzea.
- 14. Protagonistari gertatzen zaiona niri ere gertatzen zaidala pentsatzea.
- 15. Liburuak bukatutakoan, nik idatzia izatea gustatuko litzaidakeela pentsatzea.
- 16. Aspaldi irakurritako liburu batez gogoratzea.
- 17. “Zergatik irakurri behar dut orain, gogorik ez badut?” galdetzea nire buruari.
- 18. Irakurtzen ari denaren itxurak egitea irakasleak errietarik egin ez diezadan.
- 19. Liburuaren orriak usaintzea.
- 20. Liburuak irudirik baduen begiratzea.

7. Azken oharra

Honaino iritsita, agertutako jarduera hauek guztiek denbora eta arreta eskatzen dutela esatea beharrezkoa da. Adierazitako epigrafeei buruzko datuak, oharrak eta apunteak bilatzeko denbora asko behar da. Ez da komeni presaka ibiltzea, ezta ere aldizkako geldialdiak egitea, hauek batzuetan proiektu guztiak zapuzten baitituzte. Oldarkortasunaren beldur ere ez gara izan behar, zeren eta Cesare Pavese²¹ dioen moduan, “Izpirituaren ohitura guztien artetik -grinak, deformazioak, atsegina, baretasuna, e.a.-, bizirik irauten duen bakarra lasaitasuna da.

Gainerakoan, ez da beharrezkoa hemen aipatutako jarduera guztiak burutzea elkarrengandik urruntzen diren gauzen erdia aurkitzeko. Aspaldi aurkituta dago. Batzuetan, hauetako bakar batekin nahikoa izanen da zirrikitu bat irekitzeko eta liburuengana hurbiltzeko beste era bat argituko duen argi lakari bat ikusteko.


Eta hau begiztatzearekin nahikoa da.

■21. Cesare Pavese, *El oficio de vivir*, Biblioteca Breve, Seix barral, Bartzelona 1992.

.....

BIBLIOGRAFIA

- AZÚA, F., *Lecturas compulsivas. Una invitación*, Anagrama, Bartzelona 1999.
- BÉNABOU, M., *Por qué no he escrito ninguno de mis libros*, Anagrama, Bartzelona, 1986.
- BLOOM, H., *Cómo leer y por qué leer*, Anagrama, Bartzelona, 2000.
- COLOMER, T., *La formación del lector literario*, Fundazioa Sánchez Ruipérez, Madril, 1998.
- DEANE, S., *Leer a oscuras*, Mondadori, Bartzelona, 1998.
- ENZSERBERGER H. MAGNUS, *Mediocridad y delirio*, Anagrama, Bartzelona, 1991.
- LAÍN ENTRALGO, P., *La aventura de leer*, Espasa-calpe, Madril 1956.
- LARRAOSA, J., *La experiencia de la lectura*, Laertes, Bartzelona, 1998.
- LEWIS, C.S., *La experiencia de leer*, Alba, Bartzelona, 2000.
- LYNCH, E., *El merodeador*, Anagrama, Bartzelona, 1990.
- MORENO, V., *El deseo de leer*, Pamiela, Iruña, 1985.
- PETIT, M., *Nuevos acercamientos a los jóvenes y la lectura*, FCE, Mexiko, 1999.
- ROSSI, A., *Manual del distraído*, Anagrama, Bartzelona, 1997.
- SALINAS, P., *El defensor*, Alianza Tres, Madril, 1986.
- STEINER, G., *Pasión intacta*, Ediciones Siruela, Madril, 1997.
- STEINER, G., *La barbarie de la ignorancia*, Taller de Mario Muchnik, Madril, 1999.
- STEINER, G., *Lecturas, obsesiones y otros ensayos*, Alianza Tres, Madril, 1990.
- VV.AA. *La cultura del libro*, Fundación Sánchez Ruipérez, Madril 1983.
- ZAID, G., *Los demasiados libros*, Anagrama, Bartzelona, 1996.



**ESKOLAKO LIBURUTEGIKO
BILDUMA**

BLITZ

Liburutegiko saga



sorta **Urdina**

Blitz Hezkuntza eta Kultura Departamentuan

1. **Nafarroako eskoletako liburutegien azterketa:**
hurbiltze saioa
Hobetzeko gakoak
2. **Eskolako liburutegia nola antolatu**
Alderdi tekniko eta pedagogikoak



sorta **Berdea**

Blitz Eskolan

1. MARIANO CORONAS
Irakurtzeko, idazteko eta ikasteko gunea
Eskolako liburutegia
Irakurtzeko, idazteko eta ikasteko gunea
2. VÍCTOR MORENO
Irakurtzea, liburuak eta irakurtzera bultzatzea
Hausnarketak eta proposamenak